

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Tenperatura igotzeko asteak

RAMON SOLA > 11

GURASO BAKARREKO SENDIAK:

Familia eredu gisa onartuak izan daitezela aldarrikatzen dute > 12

2014ko maiatzaren 17a | VIII. urtea • 365. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ALFONSO SASTRE, ISILPEAN MINTZO

ANTZOKIETAKO ATEAK BERE IDEIENGATIK
ITXITA EDUKI ARREN, ESTATU ESPAINOLEKO
ANTZERKIGILE ENTZUTETSUENA DA SASTRE.

88 URTE DITU, ETA URTEAK BAINO OBRA
GEHIAGO. LANAZ ETA BIZITZAZ ARITU ZAIGU
LIBURUEN GOTORLEKUTIK. > 22 Jon URBE | ARGAZKI PRESS



4

Fukushimaren gaineko komiki batek haserrea eragin du 04

Europako argiak eta itzalak 08

Onarpena eskatzen dute guraso bakarreko familiek 12

Hik Hasik eta EHUK ikastaro eskaintza zabala atondu dute 17



8



12

Arteliburu21, artista-liburuen inguruan sortutako elkarte 17

e.lkarrizketa: Alfonso Sastre 22

Artzai Gaztako hainbat kidek Eroskirentzat ekoitziko dute 26

Infraganti: Asier Alcalde, sukaldaria 28



17



28



SINADURAK:

03 **Iratxe Urizar:** Non dago Brusela?

09 **Aitor Etxebarria:** Brusela

10 **Unai Fernandez de Betoño:** Gizarte hirigintza

11 **Ramon Sola:** Tenperatura igotzeko asteak

15 **Josu Imanol Unanue:** Bizimodua!

20 **Gorka Zozaia:** Urteurren beste borroka

21 **Kattalin Miner:** Hurbileko polizia maitea

25 **Iker Barandiaran:** Geure egin

31 **Iratxe Esnaola:** Google albiste

{ datorrena } Iratxe Urizar

Non dago Brusela?

Zintzoak izan gaitezen: artikulu hau geografia ikastaro bat bihurtu gabe ere, Brusela mapa batean kokatzeko gai izango al zinateke? Eta Estrasburgo? Baina ez da soilik geografikoki urruti sumatzen ditugun tokiak direlako; bestelako unibertso bat, han, Europan. Bruselan egiten den edo egin daitekeen lanaren inguruko desfekzioaren isla ere bada. Ez dugu inolako lan ezkertiarrik, progresistarik... aurkitzen hango lurretan, hango parlamentuetan. Baina lana egon bada, ugari gainera. Bere eragin esparru barruan gauden guztiok modu zuzenean ukitzen gaituzten erabaki guñeak dira Europakoak, eta, erabaki horiek gainera, positiboak ere izan daitezke, progresistak, edo, gutxienez, bai behintzat eskuinarentzako deserosoak. Eskuinaren gehiengo bati ez zaio inolaz ere interesatzen Europan ezkerreko perspektibatik aurrera eramanez daitekeen lanaren kontziente izan gaitezen, banakako eskubideen alde baina baita eskubide kolektiboen alde egin daitekeen lan eraginkorraren kontziente. Ez naiz europar esparruarekin edo bertan nagusi den filosofiarekin ados egoteari buruz ari, ezta nagusi den ideologiarekin bat egiteaz ere. Erabakiak hartzen diren esparru instituzionaletako bat (beste bat) lantzeaz ari naiz; egon, lan egin.

Gure ahotsa entzunarazi behar dugu Europako erakundeetan: gure kexak, erreklamazioak entzun behar dituzte, baina baita egin ditzakegun ekarpenak ere. Ez gara instituzio horietako gehiengoarekin bat egitera joango, ezta beraien pentsamolde edota lan egiteko formak defendatzera ere; ez dugu uste, gainera, instituzioak gure lan esparru bakarrak direnik. Lan egiteko beste esparru bat gehiago da Europa, oso garrantzitsua gainera. Izan ere, Europa jarduera esparru zabal eta indartsu bat bezala ulertuta, ezin dugu alboratu bertan erabakitzen diren auziek oihartzun eta eragin handia dutela. Horregatik, batzuetan oso geldoa bada ere, inurri lan neketsu bezain beharrezkoa da bertan burutu beharrezkoa. Maiz suertatu izan zait gure artean inoiz

albiste nagusi izan ez diren esparruetan lan egin behar izatea, baina, aldiz, esperientziak ondo baino hobeto erakutsi dit zurrumbilo handi horren barruan egin daitekeen isilpeko lanak emaitzak ekarri dizkigula.

Europa eta bertako instituzio eta erakundeak beti oso urruti dauden esparru moduan ulertu izan dira, eta bertan erabakitzen ziren auziek ezer gutxi ekarriko zigutela, txarrerako gainera. Aldiz, Euskal Herrian eta gatazka politikoaren ondorioen auzian eragin handienetakoa izan duen erabakietako bat Europatik etorri da: Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiak emandako epaia, hain zuzen ere, Espainiak Europako Giza Eskubideen Hitzarmena bortxatu zuela baieztatuz eta Parot doktrina bertan behera utzi behar zuela argi eta garbi ezarritz.

Europa jarduera esparru zabal eta indartsu bat bezala ulertuta, ezin dugu alboratu bertan erabakitzen diren auziek oihartzun eta eragin handia dutela. Horregatik, batzuetan oso geldoa bada ere, inurri lan neketsu bezain beharrezkoa da bertan burutu beharrezkoa

Horrela bada, non dago Brusela? Bada, galderari erantzunez, bururatzen zait Europa eta Brusela, nahiz eta geografikoki eta bertako instituzioen inguruko ezagutzari begira urruti sumatu, guk erabakitzen dugun tokian egongo direla: gure esku daudela esatea gehiegi esatea bada ere, gure ahotsean, gure herriko antolakunde guztien ahotsean egon daitezke. Ezkerreko beste talde batzuekin lan egiteko gure gogoan, estatu gabeko beste herriekin lan egiteko gogoan, ideia eta ezagutzak ezagutu eta entzunak izateko gogoan.

Europa, Brusela, Euskal Herriak nahi duen tokian egongo dira. •

{ txostena } Jose Angel Oria

EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

Erabat neoliberalala den eta are neoliberalagoa izateko bidean dagoen kontinentearen argiak eta kontraesanak

GITE-IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak antolatuta, Europak munduan eta Euskal Herrian duen rola bestelako begirada batekin aztertzeo hitzal-diak eta mahai inguruak egin berri dira Bilbon, agintariek eta hedabide nagusiek ezarri nahi diguten eta denok jasaten du-gun eredia bakarra ez dela azal-tzeko. European bertan, Europar Batasunetik (EB) kanpo ere ba-dagoela bizitzerik, EBren AEBE-kiko menpekotasuna eta egun nagusi den eredu neoliberalala al-datzea gure esku dagoela esan zuten adituek, beste gauza asko-ren artean.

Estrategiaren garrantzia. Nora goazen, nora iritsi nahi dugun argi edukitzea ezinbestekoa da Estatu propiorik ez dugun he-rriontzat, Iñaki Gil de San Vicen-tek nabarmendu zuenez. «Estatu propioa izateko eskubidea ukatzen zaien eta NATOren ba-rruan egotera behartzen dituz-ten herrientzat, nahiz eta errefe-rendum bitartez herritarrek aurkako iritzia oso argi adierazi, kanariarrek, katalanek eta eus-

%86

Aste honetan ezagutzera eman den inkesta baten arabera, greziarren %86 herrialdean etorkin gutxiago onartzearen alde daude. Estatu frantsesean %57 daude ados, eta, espainolean, %47.

Martin Schulz Europako Alderdi Sozialistaren hautagaia (bigarrena ezkerretik hasita) eta Jean-Claude Juncker Europako Alderdi Popularrarena (hirugarrena), kazetarien artean, hilaren 8an egin zuten eztabaidan. Markus SCHREIBER | AFP

kaldunek egin moduan, estrate-gia finkatuko duen helburu pro-grama bat izatea erabakigarria da. Helburu historiko utziezinak lortzeko epe luzeko estrategiak esango digu berehala aplikatze-ko programa nola egin. Histo-riak erakutsi digu joera errefor-mistaren eta iraultzailearen arteko borrokak lehenengoaren aldera egiten duela, epe luzeko estrategiak alboratu edo atzera-tu egiten badira». Aberatsenak bai, horiek badute beren posi-zioari eusteko eta indartzeko es-trategia, eta herriek gauza bera lortu beharko lukete, egungo eredia aldatu nahi izanez gero.

Munduko xake taula. «Nor da Europar Batasuna munduko xa-ke taulan?», galdetu zien Unai Brea “Argia” aldizkariko kazetari eta moderatzaileak Joseba Felix Tobar-Arbulu, Txente Rekondo eta Unai Vazquezi. «Estatuba-tuarrek ez dute inoiz ‘Europa’

esaten, ‘gure aliatuak’ baizik. Munduan, ekonomiari dagokio-nez, txikikeria da Europa, eredu finkorik ez duelako. AEBak, al-diz, federalak dira eta Banku Zentrala dute, FED izenekoa, banku jaulkitzailea; eta gero, es-tatu bakoitzak banku erabiltzai-leak ditu. European ez dugu ho-rrelakorik, hemen gauzak goitik behera egiten saiatu baitira. De-sastre bat da Europa. Europako eredia neoliberal hutsa da, eta, gainera, gaizki muntatuta da-go». Indar handiz erantzun zuen Tobar-Arbulu ekonomialariak, gero eta marxistagoa dela esan ondoren.

Ipotxa eta zizarea. Brearen gal-derari erantzuteko, Rekondok oso esaldi grafikoa eskaini zuen: «Europar Batasuna ekonomiko-ki potentzia bat da, bere pisua duena; politikoki, ipotxa; eta militarki, zizarea. Lobbykrazia, eredu neoliberalala, porrota,

orientazio berriak behar direla, gurutze-bidea, hiritarren kon-trakoa, inperialismoa, herriaren babesik ez duen proiektua, krisi amaigabea, egiazko momen-tua... Horrela laburtzen da zer den gaur Europar Batasuna».

AEBekiko menpekotasuna. Eu-ropar Batasuna demokratikoa ez izatea eta AEBekiko menpekota-suna nabarmendu zituen Vaz-quez soziologoak. «Ez da demo-kratikoa, Troika baita benetan agintzen duena, inork aukera-tzen ez duen erakundea alegia». Ekonomiari eta armei dagokie-nez, munduko ekonomiaren eta armaden %20 inguru omen da gaur egun. «Ez ditu lehengaiak, eta horregatik menpekotasun handia du eta horrela izango du etorkizunean ere. Militarki ere munduko armaden %20 inguru du Europak. Militarki diot, bote-re errealeko bat baita. Botere-ak exekutiboa, legegilea eta ju-



diziala direla esaten digute. Gezurra da. Nik esango nuke militarra, ekonomikoa eta komunikatzeko gaitasuna direla, hedabideak alegia. Eta Europako armaden ardatz komuna NATO da. Horrek suposatzen du AEBekiko menpekotasuna».

Merkataritza hitzarmenak.

TTIP hitzarmenak ere jarri zituen mahaiaren gainean «Argia» aldizkariko kazetariak. «Merkataritza librerako hitzarmenak. Orain egosten ari dira AEBen eta Europaren arteko TTIP hitzarmenak. Ikuspuntu ezberdinak daudela ikusten ari gara. Gainera, une honetan nahasten ari da Ukraina eta Krimeako gatazka-ekin eta krisi energetikoarekin. Zer iruditzen zaizkizue Mendebaldearen hegemoniari eusteko diseinatutako TTIP horiek? Noren intereserako dira gehien? AEBek ala Europak, nork galduko du gehien?».

Ekonomia erreala eta fikziozkoa bereizi zituen Tobar-Arbulu ekonomialariak, garaileak AEBak izango direla esateko. Lehenengoan, jarduera industrialarekin lotutakoan, merkatu librerik ez dagoela nabarmendu zuen, «konpainia handiek kontrolatzen baitute guztia». Eta bigarre-na, finantza ekonomia, izugarri garrantzitsua da, eta hori ere «AEBen alde dago gaur egun».

Eskandinavia. Gainera, Tobar-Arbuluk gogorarazi zuen Europa eta Europar Batasuna ez direla gauza bera, «Europar bertan baitaude oso interesgarriak diren Suedia, Danimarka, Norvegia eta Islandia, ia inork aipatzen ez dituen herrialdeak. Nahikoa ondo funtzionatzen dute, badituzte beren banku zentralak, nahiz eta hain boteretsuak ez diren. Eurotik kanpo dagoen Europa dira, nahiko ondo doana. Norvegia eta Islandiaren kasuan, gainera, EBko kide ere ez dira».

Rekondo nazioarteko analistak borobildu zuen ideia: «Errusia eta Turkia ere, esaterako, Europa dira. Tobarrek aipatutako herrialdeak txikiak dira eta hori oso interesgarria eta garrantzitsua da guretzat. Euskal Herriaz hitz egin dugunean, bideragarritasuna



Ume bat Atenasko azoka batean, nekazariak doan eskainitako jakiak amak nola hartzen dituen begira.
Aris MESSINIS | AFP

%51

Etxean duten egoera ekonomikoaren inguruko inkesta baten arabera, Hungaria eta Portugalekoak dira europar herritarrik pesimistenak, %51k esan baitute egoera txarra dutela.

aipatzen dugunean, kontxo, badirudi errealtate txiki horiek aukera gehiago ematen dutela bideragarritasuna lortzeko».

Ahots bakarra. Rekondok oso garbi dauka TTIP hitzarmenetatik AEBek gehiago lortuko dutela: «Ahots bakarra dute, eta EBk ez. Gainera, AEBek aliatuak dituzte EBren barruan. Orain gutxi ikusi dugu Britainia Handian EBren inguruko kontraesanak sortu ondoren, hurrengo egunean François Hollande frantses presidentea Obamarekin hitz egitera doala, jakinda, gainera, Ukrainako gatazka dela-eta Merkelen aurkako adierazpenak sortu direla, Washingtonek bultzatutako adierazpenak». Erantsi zuen AEBek TTIP hitzarmenak erabiliko dituztela europarren posizioa ahultzeko, munduko beste eskualdetan egin izan duten moduan.

Kapitalismoaren baitan. Unai Vazquezek gogora ekarri zuen merkataritza librerako hitzarme-

nek AEBei egiten dietela mesede, eta Europar Batasunarekin ezkutan negoziatzen ari diren hitzarmenak ere gauza bera egingo duela. «Europako oligarka jakin batzuei ere bai, jakina, betikoei. Zergatik akordioa? Munduan izan duten nagusitasuna edo hegemonia kolokan ikusten dutelako. Orain arte polo bakarrek munduan edo mundu unipolarrean bizi ginen; AEBak ziren nagusi. Egun ere hegemonia militarri eusten diote, mundu osoko ahalmen militarren %50 baino gehiago pilotzen baitute... Hitzarmena beharrezko dute nagusitasunari eusteko, BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika potentzia emergenteak) taldearen indarra dela-eta. Hegemoniaren inguruko borroka egon badago, baina eredu kapitalistaren baitan».

«Europar dauden beste ereduak dagokienez, argi dago berdintasun gehiago dutela iparraldeko herrialdeetan, baina barne banaketa justuago hori egiteko munduan plusbalioa nola lor-

tzen duten zalantzan ipintzekoa da: eredu kapitalista bera da, beste herrien esplotazioan oinarritzen dira, konpainia transnacionalen bitartez».

Monetaren garrantzia. Tobar-Arbuluk esplikatu zuen gaur egun hiru polo nagusi direla munduan, moneta jakin batzuen inguruan antolatutako hiru polo. «Dolarraren inguruko poloa (euroa barne), Errusia eta errubloaren ingurukoa, eta Txina eta yuanaren ingurukoa. Horiek ere gero eta gehiago ikasten ari dira. Garai batean Errusiaren eta Txinaren arteko transakzioak edo salerosketak dolarren bidez egiten zituzten; orain ez, orain beraien txanponekin egiten dituzte».

Sucreea eredu. Bestelako eredu bat eraikitze aldera, sucreea ekarri zuen gogora ekonomialariak. Azken urteotan ia beti gertatzen den moduan, Latinoamerikatik datorkigu tunelaren bukaerako argitasuna. Dolarra erabili be-

har ez izateko 2008an ALBAko herrialdeek eta Ekuadorrek (garai hartan ez zegoen ALBA sartuta) sortu zuten txanpon birtualaren izena da. Venezuelan, Kuban, Bolivian, Nikaraguan, Hondurasen, Dominikan eta Ekuadorren funtzionatzen du eta balio nominala du. «Beraien monetarekin egiten dituzte harremanak, ez dolarrarekin. 1960ko hamarkadan ez lerrokatutako herrialdeen mugimenduen ekimen potente bat izan zen, baina dolarra jarri zuten beraien arteko transakzioak egiteko moneta moduan. Esperientziak porrot egin zuen», azaldu zuen. Aldiz, Ekuador eta Bolivia NMF Nazioarteko Moneta Funttsari ateak ixteko gai izan dira, horretarako tresna egokiak zituztelako, «banku zentralak alegia», Tobar-Arbuluren arabera.

«Hamarkada galdua». Moderatzaileak ekarri zuen gogora begirale batzuek esaten dutela Europar Batasunaren egungo egoeraren eta Latinoamerikan 1990eko hamarkadan, «hamarkada galduan», izan zuten egoeraren artean antzekotasunik izan badagoela. «Hark erantzun politiko gogorrak eta aldaketa errealek ekarri zituen. Ondorioz, ALBA sortu zen. Hemengo, Europako, erantzunak ahulagoak dira. Europan eskuinaren igoera aipatzen da, edo eskuin muturreko mugimendu batzuen agerpen efektistak medioetan, agian...», Brearen hitzetan.

Zorpetutako gizarteak. «Egoera objektiboa nahikoa antzekoa delako egin daiteke alderaketa», hasi zen Vazquez. «Europan zorpetu duten gizarte bat dago, eta orain zorrak kitatzeko baldintza batzuk ezarri ditu Troiak. Horiek bete egin behar dira. NMFk eta BM Munduko Bankuak 1990eko hamarkadan gauza bera egin zuten. Jendeak ezin zuen gehiago eta egoera lehertu egin zen: matxinadak, *corralito*-a Argentinan, *caracazo*-a Venezuelan, uraren eta gasaren gudak Bolivian... Orain egoera horretan gaude Europan. Horregatik sortu dira horrenbesteko mobilizazioak Europan. Betiere kon-

tuan hartuta ez direla gauza bera Europako gizartea eta Latinoamerikakoa». «Guk orain Latinoamerikan ikusten dugun mugimendua ez zegoen orain hogeitau urte, hango aldaketak hasi zirenean. Orain hamarkadetakoa ibilbidea ikusten dugu. Baldintza subjektiboak eraikitzen orduan hasi ziren. Boliviako MAS, esaterako, sindikalismoak eta

Rekondo: «Europar Batasuna ekonomikoki potentzia bat da; politikoki, ipotxa; eta militarki, zizarea. Lobbykrazia, porrota, eredu neoliberal... Hori da Europar Batasuna»

Vazquez: «Herri mobilizazioak eta mugimendu politiko berriak indartu egin behar dira, besteak beste, oraingo mugimendu ez antolatu horiek Argentinan bezala buka ez dezaten»

herri mugimenduek sortutako tresna bat izan zen, 'Instrumento Político para la Soberanía de los Pueblos'. Subiranotasuna eta botere exekutiboa lortzeko tresna izan zen. Horretan jarri behar harko lukete burua Europako herri mugimenduek. Herri mugimenduak antolatu behar dira, ildo baten baitan elkarrekin borrokatzeko. Latinoamerikako esperientziatik ikasi egin behar dugu. Badira beste eredu alternatibo batzuk. EBtik kanpo ez du horrenbesteko hotzik egiten. Adibideak ere badira: Troiak ezarritako bidetik aldendu direnak dira aurrera aterak direnak».

Zor publikoa. Troika Europar Batasunak duen arazoaren izebergaren tontorra baino ez dela usate du Tobar-Arbuluk. Gogorarazi zuen Latinoamerika denbora asko egon dela NMFk ezarritako

politiken mendean. «Funttsa da NMF, ez banku zentrala, eta iparreko banku handien tresna izan da betidanik. Hegoaldeko herrialdeei zer ekoitzi, zer preziotan saldu, nola saldu eta abar luze bat esaten zien NMFk. Beste inperialismo mota bat da». Europaren kasuan, arazorik larriena da %3ko defizit publikoaren muga ipini izana, «munstroke-ria» ekonomialariaren iritziz.

Defizita handitu. «Hori da Europan nagusi den teoria ekonomikoaren funttsa. Beste teoria batzuekin bat egiten dugunok diogu defizit publikoa handitu egin behar dela, banku zentralaren bidez dirua egin eta nahikoa diru egongo dela enpresa txikientzat, ertainentzat, erretiroak ordaintzeko, irakaskuntzari eusteko... Orain Troiak esaten digu defizit handiegia dugula eta





Ezkerreko irudian,
austeritatearen aurkako
manifestarien eta
Poliziaren arteko borrokak
Turinen.

Marco BERTORELLO | AFP

Eskuinekoan, herritarrak
Londresko zubian lainoaren
erdian oinez, garraio
publikoko langileek
egindako lanuzte baten
eraginez. Argazkia
apirilaren 30ean
hartutakoa da.

Carl COURT | AFP



desideologizatuta daude. Ez dau-
de ondo antolatuta, baina esango
digute mugimendu horizontalak
direla. Ez dakit bada! Irakeko ge-
rraren aurkako manifestazioetan
batzuek ez zuten politikaz hitz
egin nahi», esan zuen. Bere ustez,
«demokrazia gabezia izugarria»
jasaten dugu European eta «era
prepolitiko batera» itzuli gara
erabakitzeko eskubidea aldarri-
katzean. «Europar Batasunak es-
portatu nahi duen eredu demo-
kratikoaren arabera, botoa
lauzpabost urtean behin ematea
nahikoa da, baina aztertu behar
da zein baldintzatan egiten diren
bozak. Banketxeak dira diruaren
jabe eta horiek erabakitzen dute
nori lagundu eta nori ez». Komu-
nikabide handienak ere aberatse-
nen mendean daudela ekarri
zuen gogora.

Bipartidismoaren porrota. Tes-
tuinguru horretan sortutako po-
pulismoa ere aipatu zuen Rekon-
dok: «Ez naiz ez ezkerrekoa ez
eskuinekoa esaten duten horiek
bestearen kontra daude, kanpo-
koaren kontra, elite politikoaren
aurka, Bruselaren aurka. Kezka-
garriagoa: estatueta gero eta
nabariagoa da proiektu politiko
bakar batera goazela. Bipartidis-
moaren porrotaren ondoren, ba-
dirudi batasun nazional baten bi-
la goazela, batasun nazionala
gobernua osatzera, Grezian eta
Italian ikusi dugun moduan; eta
Alemanian bertan ere bai, Merke-
lek SPD alderdi sozialdemokrata-
rekin paktatu baitu. Laborategiko
esperimentua. Seguru espainiar
Estatuan ere aurki ikusiko dugu-

la antzeko zerbait. Eta agian fran-
tses Estatuan ere bai, eskuin mu-
turreko Le Penen igoera dela-eta,
lehen ere gertatu zen moduan»,
Rekondok egiten duen irakurke-
taren arabera. «Hori gertatuko da
ekonomiari dagokionez funtsean
ados daudelako. Eredua bera du-
te», erantsi zuen Tobar-Arbulu
ekonomialariak.

Matxinada-errepresioa. Europa
neoliberal dela eta neoliberala-
goa izateko bidean dagoela argi
geratu zen Hamaika Telebistak
eskainitako mahai-inguruan.
«Ongizate Estatuaren egingo
du. Nola egingo dio aurre bote-
reak horrek eragingo duen ten-
sio sozialari? Matxinada-erre-
presioa dinamikan noiz arte
dago segitzea?», galdetu zuen
Unai Break. Vazquez soziologo-
ak erantzun zion: «Indarra era-
bilita. Espainian legea aldatu
dute edonor atxilotzeko, gero
eta mobilizazio handiagoak
egingo direla badakitelako. Nola
zigortu, nola atera jende hori
kaletik, pentsatzen hasiak dira.
Gero ikusiko dugu errepresio
politika hori jasagarria ote
den. Gil de San Vicentek esaten
zuenez, non eta Alemanian, us-
tez etxe okupatu bat husteko
salbuespen egoera militar bat
ezarri zuten». Hanburgoko isti-
luak zituen gogoan.

Botoa, betikoei? Txente Rekon-
dok ez du onartzen krisia amai-
tzen ari denik. Uste du krisiaren
ondorioak oraindik garbiago na-
barituko ditugula Euskal He-
rriaren hemendik urte batzuetara.

Adibide kezkarri bat eskaini
zuen: Britainia Handian aspaldi
pribatizatu zuten osasungintza,
hezkuntza sistema, diru lagun-
tzak kendu, inbertsio sozialak ere
bai... eta horrek herri txiroetan
sortu du egoera jasanezin bat.
Egoerak eztanda egin dezan bal-
dintzak sortzen ari dira, Argenti-
nan eta Grezian ikusi genuen
moduan. Baina herri mugimen-
duen ahultasuna ikaragarria da.
Argentinan '*que se vayan todos*'
esaten zuten, baina guztiak itzuli
dira; Grezian, mobilizazio ikara-
garriak egin ondoren, bozkete-
tan, betikoei botoa».

Inflexio-puntua. Unai Vazque-
zek uste du inflexio-puntu bate-
an gaudela European. «Herri mo-
bilizazioak eta mugimendu
politiko berriak indartu egin be-
har dira, besteak beste, oraingo
mugimendu ez antolatu horiek
Argentinan bezala buka ez deza-
ten. Aldaketa kosmetiko txiki
batzuen bitartez indargabetu
egin daitezke gaizki antolatuta-
ko mugimenduak».

Nondik ikasi ere badugu.
«Bestelako esperientzia eskaini
digute ALBAko herrialdeetan:
herri boterearen bitartez, politi-
kari zaharrak kanporatu egin di-
tuzte eta beraiek kudeatzen du-
te orain Estatua bera». Kontrako
adibidea litzateke Islandia. «Ba-
zirudien sekulako iraultza zeto-
rrrela. Azkenean ez da inor joan
eta prozesu eratzailea ezertan
geratu da. Ikasi behar dugu
tranpa non egingo diguten, hori
ez errepikatzeke eta boterea be-
netan berreskuratzeko».

murritzatu egin behar dela. Non-
dik? Gastu publiko eta soldate-
tatik. Hori litzateke azken neurri
moduan hartu beharrekoa».

Eskuina eta ezkerre. Txente Re-
kondoren ustez, Europar Bata-
sunean sozialdemokraziak po-
rrot egin du, «hemen benetan
irabazi duen bakarra eskuineko
proiektua baita. Medioetan ba-
dirudi hemen dagoen lehia zen-
troan kokatzen dela, denak dira
zentro-ekzerra edo zentro-esku-
ina. Eskuinak erakarri du ezkerre
zentro-eskuinera. Euskal Herria
aparte utzita, Europako ezkerre-
an sozialdemokraziatik at ezer
ez dago».

Desideologizazioa. Azken urte-
tan herrialde industrializatueta
sortu diren giza mugimenduak
ere aztertu zituen nazioarteko
analistak. «Mugimendu horiek

751

**Hilaren 22tik 25era
egingo diren
hauteskundeetan
Europar Batasuneko
herritarrek 751
eurodiputatu
aukeratuko dituzte.
Hilak 22an Britainia
Handian eta
Herbehereetan
bozkatuko dute; 23an,
Irlandan; 24an,
Estonian; eta 25ean,
gainerako estatueta.**

2/3

**Hiru irlandarretik
biri ez zaizkie
interesatzen europar
hauteskundeak,
«The Irish Times»
egunkariak
ezagutzera emandako
inkesta baten
arabera.**

JAPONIA

Fukushimako arriskuak aipatzen dituen komikiak agintarien haserrea eragin du

 GIZARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

Joan den astelehen goizaldean Japoniako mangazale ugari 24 orduz zabalik egoten diren establezimenduetara joan ziren «Oishinbo» izeneko komikia lehenbailehen erostera. Aipatu lanak Fukushimako zentral nuklearraren inguruko arazoak ekartzen ditu gogora, Japoniako egungo agintariak normaltasun itxura eman nahi dutenean.

Kazetaria da “Oishinbo” izenburuko manga edo komiki japoniarreko protagonista nagusia. 2011ko martxoaren 11n lurrikarrek eta tsunami batek suntsitutako zentral nuklearra bisitatu ondoren, aipatu kazetaria sudurretik odolatan hasten da.

Hori gertatzen da argitara emandako azken aleetako batean, eta Japoniako agintariak haserretu egin dira, komikiak herritarrek zentralaren egoeraren inguruan duten pertzepzioa kaltetu dezakeela-eta.

1983az geroztik astero argitaratzen den komikiak eztabaida bizia eragin du Japonian. 2011ko istripuaren ondorioz askatutako erradiazioa aipatzen du mangak eta hori ez da normaltasun itxura eman nahi duten agintarien gustuko.

Komikian Katsutaka Idogawa Futaba herriko alkate ohia ere agertzen da. Istripuaren ondorengo kudeaketa gogor salatu du Idogawak, bera ere kutsaduraren biktima dela esateaz gain. Salaketa indartzeko, Facebooken ipini ditu bere sudurrari odola dariola egindako argazkiak. Futabako herritarrak beste leku batera eraman zituzten istripua gertatu eta berehala, suntsitutako zentral nuklearretik gertuen dauden herrietako bat baita.

EDUKI «ONARTEZINA»

Futabako alkate ohiak eta eskarmentu handiko zientzialari batek zentral nuklearraren inguruan bizi ziren herritarrei adierazten diete bertara itzul-

tzea ez dela ideia ona, kutsadura garbitzeko lanak egiten ari diren arren, eremua ez baita inoiz bititzeko segurua izango, betiere komikiak dioenez.

Mangaren edukia «onartezi-na» dela esan dute Fukushima-ko prefekturako agintariak. «Eskualde osoko biztanleak bazterketa arriskuan ipini ditu komikiak», esan dute. Shogakukan argitaletxearen aurrean protesta formala egin dute. “Asahi” egunkariak eskainitako informazioaren arabera, argitaletxeak “Big Comics Spirits” izeneko manga astekarian eman du argitara iskanbila eragin duen lana.

Agintariak emandako esplikazioak ez dira inor lasaitzeko modukoak. Alde batetik diote Fukushima-ko inguruan egindako aipamenek «eskualdearen irudia kaltetu» dezaketela. Nola kaltetu daiteke istripu nuklear larri bat jasan behar izan duen eskualdearen irudia?

Agintariak eranstean dute irakurleek pentsa dezaketela komikian azaldutakoa benetako deskribapen bat dela, eta era horretan «turismoari eta neka-

Japonian sekulako eztabaida eragin duen lanaren gidoilaria 72 urteko Tetsu Kariya da. Bere gain hartu du komikiaren edukia erantzukizun osoa eta ez dago atzera egiteko prest

Istripuaren ondorengo kudeaketa gogor salatu du komikian agertzen den Futabako alkate ohi eta kutsaduraren biktimak. Facebookera igo ditu bere sudurrari odola dariola egindako argazkiak

zaritzari kalte ekonomiko larriak» eragiteko arriskua dagoela. Berri agentziek eskainitako informazioan ez da ageri zer-nolako turismoa hartzen duen gaur egun Fukushimako prefekturak. Beraz, zaila egiten da turismoak izan dezakeen kaltea neurtzea.

NEKAZARITZA KALTETU?

Baina mangak nekazaritza ere kaltetu egin dezakeela esatea edonor kezkatzeko modukoa da. Ba al dago nekazaritza jarduerarik zentral nuklearraren eskualdean? Zer ekoizten dute? Non saltzen dute? Zer-nolako anali-

siak egiten zaizkie hor ekoiztita-ko produktuei?

Fukushimako Gobernuak plazaratu duen agiriak dio ez dela bidezkoa mangaren protagonistak zentral nuklearrera egindako bisitaren ondoren osasun arazoak izatea bisitaren eraginez. Gainera, agintariak uste dute ez dagoela esaterik zentral nuklearraren inguruko eremuan inoiz bizitzerik ez dela izango.

Mangak dio Fukushimako hondakinak erretzen dituzten Osaka hiriko biztanleek ere osasun arazoak izan dituztela erradiazioaren eraginez.

Japoniar bat, «Oishinbo» izenburuko komikia irakurtzen.
Yoshikazu TSUNO | AFP



Brusela

Aitor
Etxebarria

Behin Bruselan
Washingtonen
baino *lobby* eta
nazioarteko ko-

rresponstsal gehiago daudela irakurri nuen. Ez da gutxiagorako, belgikar instituzioekin batera Europar Batasuna eta NATO baitaude Europako hiriburu den hirian. *Lobby* horietako gehienek multinazional eta gobernuen interesak ordezkatu eta defendatzen dituzte, baina ez bakarrik. Mundu osoko nazio askapen mugimenduek ere Bruselan ordezkaritza dute, kurduak (bai BDPk bai KNK-k), Kolonbiako Marcha Patriótica mugimenduak, Myanmaroko Euro-Burma taldeak eta abar luze batek bulegoa dute Bruselan eta Europar Batasuneko instituzioetan *lobby* lana egiten dute. Argi dute, argi beharko genuke guk ere, europar instituzioek berebiziko garrantzia dutela euren herrietan gartzten ari diren borroketan.

Iraganean ezker abertzaleak Europako Parlamentuan ordezkaritza izan duenean, bereak ez ezik, beste hamaika herri ezberdinetako aldarrikapenak ere defendatu ditu. Beste borroka eremu horietako eragile politiko eta sozialekin harreman sendoak eraikitzeke erabili du eserlekua. Munduan dauden ezker mugimendu eta estatutrik gabeko herrietako eragile askok EH Bilduk eserlekua lortzea nahi dute, euren interes eta iritzia defendatuko dituen koalizioa baita. Elkartasun eta internazionalismoan aurrerapauso sendoak emateko ere lagungarria baita bertan egotea.

Mundu guztiko kazetariak daude Bruselan, gurea mundura zabaltzeko leiho paregabea da, ez dezagun aukera galdu, ez dadila gure erruz gurean bizi den egoeraren errelato bakarra, *statu quo*-arena egon. Zer pentsatzen dugun eta zer eskaintzen dugun ozen eta harro azaltzera joan behar dugu Bruselara, zubiak eraiki, elkarlana indartu eta elkartasuna eskaini eta jasotzera. Gurea indartu eta besteekin batera Europa berri bat eraikitzen lagundu. Ez dezagun tren hori galdu. •

Nobuteru Ishihara Ingurumen ministroak berak komikia salatu badu ere, Shogakukan argitaletxeak ez dauka atzera egiteko asmorik. Jakinarazi du agintariak esandakoa eta adituen iritzia argitara emango dituela aldizkariaren hurrengo alean, datorren astelehenean salgai jarriko den komikian.

72 URTEKO GIDOILARIA

Eztabaida eragin duen mangaren gidoilaria 72 urteko Tetsu Kariya da. Bere gain hartu du komikiaren edukiaren erantzukizun osoa. Jakinarazi du bere lana azken bi urteotan kutsatutako ere-

mura egindako bisitatan berak bildutako informazioan oinarrituta dagoela.

«Ez ditut ulertzen komikiaren inguruko gaizki esanak, han bertan ikusitakoari buruz idatzi besterik ez dut egin-eta», adierazi du Kariyak bere blogean.

Gidoilariak dio gertatzen ari denaren aurrean «begiak ixteko» asmorik ez daukala, «norbaiti komeni zaizkion gezurrak idazteko asmorik ez dudana moduan». Egi-leak bazekien Fukushima zentral nuklearraren inguruko herri-tarrak sudurretik odola dariela egoten direla esateak protestak eragingo zituela, baino ez zi-

tzaion burutik pasa ere egin horrenbesteko ekaitza sortuko zenik. «Guztiok nahiago dugu irakurri Fukushima dena ondo dagoela eta berreraikuntza aurrera doala, baina hori ez da egia», esan dio France Presseri.

Kariya prest dago agintariak ezarritako *omertà* edo «isiltasunaren legea» apurtzeko, baina ez du baztertzen Gobernuak argitaletxea estutu eta azkenean «Big Comics Spirits» izeneko manga astekaria ixtea.

Shinzo Abe lehen ministro kontserbadorearen Gobernu energia nuklearraren aldekoa da. Japonian itxita dituzten zentral nuklear guztiak zabaldu nahi dituzte, baina herritarren kontrako jarrerak aukera hori atzeratu egin du, oraingoz.

«Asahi» egunkariak aste honetan bertan jakitera eman duenez, Fukushima zentraletik hoge kilometro eskasera dauden kirol instalazio batzuk Tokion 2020an egitekoak diren Olinpiar Jokoe-tan parte hartuko duten futbol taldeek entrenatzeko egoitza moduan erabili dezaten nahi du Exekutiboak.

OLINPIAR JOKOAK

J-Village izeneko instalazioak TEPCO konpainiak erabiltzen ditu egun, suntsitutako zentral nuklearrak eragindako kutsadura garbitzeko lanak kudeatzeko. Besteak beste, Fukushima kutsadura garbitzen ari diren milaka langile bizi dira egun J-Villagen.

«Eremuko baldintzak hobetu behar ditugu Japoniako zein beste herrialdeetako futbolariak bertan entrenatu ahal izan dezaten», esan du Hakubun Shimomura Japoniako Kirol ministroak, «Asahi» egunkariaren arabera. J-Village 1997an inauguratu zuten Entrenamendu Zentro Nazionala izateko asmoz.

Orain dela lau hilabete TEPCO konpainiak esan zuenez, 2019rako gunea Japoniako Futbol Elkarteari itzuli nahi diote, kirolariak berriz ere instalazioak erabiltzen has daitezen. Naomi Hirose TEPCOko presidenteak urtarrelean esan zuenez, Tokioko Olinpiar Jokoa aukera ezin hobea izango dira instalazioetara «normaltasuna» itzul dadin.





Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa


Gizarte hirigintza

Krisia dela eta, gero eta gehiago hitz egiten da gizarte ekonomiaz. Hau da, pertsonak eta gizarte helburua kapitalaren gainetik ezartzen duen ekonomia bidezkoaz. Hirigintza ere, jakina, gizarte patroir horretatik beretik pentsatu eta gauzatu liteke, azken hamarkadotan jazotako jokabide eredu gainbaliozale hutsetik harago. Eskuineko postura erosoetatik entzun ohi den kritika zabalduaren aurka, azken bolada luzeotan egiazko proiektu alternatibo eta eraikitzaile bat osatzen ari baita ezkerreko pentsamoldean, parametro positiboetatik, lehiakortasun gupidagabearen aurrean gizarte –eta ekologia– efizientzia lehenesten dituen; eta, egiturazko proiektu handinahi eta beharrezko horretan, hirigintzaren alorrak ez luke salbuespenik izan behar.

Iragan otsailaren amaieran EHUko ekonomia eta enpresako zenbait irakaslek idatzitako “Pertsonen zerbitzurako ekonomia baten alde” manifestu interesgarriak ederki sakondu zuen esandako gizarte ekonomiaren nondik norakoetan. «Ezin dugu ekonomia gertaera eta erabakien konplexutasunaren atzean ezkutatzeko jarraitu, betiere nolabaiteko ospe tekniko bat emanez, hain zuzen ere erabaki politikoak adituei soilik dagozkien erabaki teknikoak direla justifikatzen duen ideiarene mesedetan». “Ekonomia” terminoa “hirigintza” hitzak ordezka lezake lasai asko. Zergekin batera, Administrazio Publikoaren finantziario tresnarik garrantzitsuen izan baita hirigintza. Hortaz, ekonomiaren ikuspegi sozialagoa aldarrikatzen den bezala, hirigintza ere gizartera

begira egitea eskatu beharko litzateke. Nola, ordea? Hainbeste aipatzen den gizarte kohesioa errazteko hiri eraikiz: dentsitate baxuko aldiri barreiatuak bultzatu ordez, hiri-gune trinkoaz eginez; segregazio zonifikatua sustatu ordez, erabilera anitzeko auzoak eraikiz; plangintza erabakiak goitik behera hierarkikoki hartu beharrean, herritarrekin partekatuz eta adostuz; autoa lehenetsi ordez, oinezkoengan eta txirrindulariengan gehiago pentsatuz; hirigintza kudeatzeko udal sozietate opakoak sortu ordez, eredu gardenak erabiliz; mundu mailako hiri lehiakortasun espantsionistan pentsatu ordez, gertuko ekonomia laguntzeko hirigintza politika iraunkorrak gauzatuz; aukera-eremuen birkalifikazio espekulatiboaren doktrina kapitalista azkarraren aurrean, gutxika egiten den eta ikusgarria den hirigintza erreala hezurramituz; lehen sektorea indartuz; azpiegiturak errentagarritasun sozialaren arabera neurtuz...

«Interes kolektiboa aintzakotzat hartzen duten jokararen baitan proposatu behar dira jardura ekonomikotik eratorritako negozio eta errentagarritasunak, eta ez alderantziz» zioen, halaber, aipatutako manifestuak. Kendu “ekonomikotik” eta jarri “urbanistikotik”, berriro ere, eta gizarte hirigintzaren oinarrietako bat agertuko zaizu. Irizpide horrek, arestian azaldutakoekin batera, komunitaterako hirigintza sozial berri(tu)aren eskuliburua osatzen lagundu beharko luke. Berandu baino lehen landu beharreko eskuliburua. •



ILUSTRAZIOA: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Tenperatura igotzeko asteak

Prozesu politikoek ibilbide orriak, adierazpenak, itunak eta abar behar dituzte, baina, arrakastatsuak izateko, horien guztien hoztasunaz gain, jendearen berotasuna ezinbesteko dute. Ilusioa, energia, indarra. Aldarte hori neurri handi batean prozesuaren erritmoak berak baldintzatzen du. Azkarregi joateak, adibidez, hainbat arrisku ditu, urratsak airean eman eta azkenik erortzearena esaterako. Mantso-mantso aurrera egitea, aldiz, zuhurragoa da; hori bai, gizartearen indarra ahultzeko eragina ere badu moteltasun horrek.

Hain zuzen ere, konponbide prozesua estatuen aldetik jasaten ari den blokeoari aurre egiteko asmoz iazko martxoan burututako Gizarte Foroan aipatutako auzia aztertu zen. Gogoan dut Irlandan armagabetzea lortzeko lanean ibili zen Aaro Suonio abiaduraren moteltzeari garrantzia kentzen ahalegindu zela: «Euskal Herrian urpekari asko daude, eta horiek ondo dakite honako hau: norbait itsasoaren urpean sakonean dagoenean, ezin du aire zabaleraz azkarregi igo, deskonpresio egozia lortzeko geldialdiak egin behar ditu-eta».

Horrela izango da, baina gogora datorkit ere George Howarth Westminsterreko parlamentari laboristak GARARI elkarrizketa batean esandakoa, Irlandako bake prozesuan ateratako irakaspenetan oinarrituta: «Berebiziko garrantzia du unearen eta bultzadaren zentzua sortzea, eragile guztiek begirada beti etorkizunari begira jar dezaten, iraganari begira baino». Suoniok uste zuenaren aurka, gaur egun urpekari baino surflari gehiago dago Euskal Herrian, eta, horregatik, gustukogorago izan ohi dugu olatuaren metafora, Howarthen ustea, alegia.

Aiete eta borroka armatuaren amaiera eman zirenetik hirugarren ikasturtea bukatzeaz da, eta, objektiboki aztertuta azken urte honetan hainbat aurrerapen eman badira ere, aurreko ikasturtean bezala, gizartearen termometroa jarrita hoztasuna berotasunaren gainetik nabarmentzen da. Gora egindako gradu bakoitzeko ur hotzeko botilakada isurtzeko baliabiderik ez zaie falta: Estrasburgoko epaiaren ondoriozko presoek kaleratzeko hainbat neurri berri eta gogorrekin erantzun diete

(zigorren «zenbaketa bikoitza» ezartzen duen doktrina edo kaleratutako presoek subsidioa kendu izana adibidez); EPPKren urratsa izozkailuan sartu dute, Euskal Herriaratzeko egindako eskaerak denboran luzatuz; ETAren armagabetzerako lehen pausoa indargabetzen saiatu dira, keinua mespretxatuz eta nazioarteko egiaztaileak auzitegiara eramanez; eta abar, eta abar.

Hortaz, udazken-neguko itxura hartu du prozesuak hirugarren ikasturte honetan ere, zintzoki ikusita prozesua bera hondamendira eramateko moduko denborale, elurte edo uholderik gertatu ez bada ere. Tenperatura igotzeko beharra sumatzen da, eta orain da unea, maiatzak eta ekainak berez dakarten epelaldiarekin. Europako hauteskundeak ez dira jendea bereziki erakartzen ari, baina une oro prozesua aurrera eramateko lanean dabilen EH Bilduk eskura du Estrasburgon eserlekua lortzeko aukera, eta bata bestearen atzetik etorri

Prozesuaren alde hainbat kolpe bata bestearen atzean lotzeko aukera dago aspaldiko partez: M-25eko hauteskundeak, E-8ko giza katea, E-14ko Baionako manifestazioa, E-15eko ekitaldia...

beharreko lehen kolpea izango litzateke. Ekainaren 8rako Gure Esku Dago ekimenak antolatutako giza katea edonoren ilusioa pizteko modukoa da, eta, espero bezain jendetsua izanez gero, negua betikotu nahiko luketenen aurkako bigarren kolpe gogorra litzateke. Hil horren 14an konponbidearen eta presoek eskubideen aldeko manifestazio handia iragartzen da Baionan; hurrengo egunean Joseba Azkarragak, Teresa Todak eta beste hainbat lagun ezagunek osatutako erakundearen sorrera etorriko da; hauteskundeak pasa arte geldirik zeuden beste hainbat ekimen berriz ere abia daitezke uztaila heldu aurretik...

Ur hotza prest izango dutela segurua da (hainbat presoren egoera izugarri kezagarria da, espainiar auzitegiaren hiru epai politiko dituzte aztergai uneotan...), baina su gehiegi piztuko zaizkie batera. •

GURASO BAKARREKO FAMILIAK

Legeetan zein gizartean duen lekua aldarrikatzen duen familia eredua

📁 GIZARTEA / amalur.artola@gaur8.info

Zure kabuz ama izatearen erabakia hartzea ez da batere erraza. Agian zure bizitzako erabaki zailenetarikoa da, denaren kargu zu bakarrik egongo zaren familia bat osatzea erabakitzen ari zarelako. Ez da soilik haurra jaiotzea eta ze eskolara eramango duzun erabakitzea; autoa apurtzen bazazu ordutegiak berdin bete behar dituzu, ziurrenik ezingo duzu lanordu murrizketa eskatu soldata bakarrarekin bizi beharko duzulako, haurra gaixotzen bada berdin joan behar duzu lane- ra eta nork zaindu bilatu behar duzu... Kontziliazioa ez da batere erraza. Baina, behin erabakia hartu duzunean, geldiezina da. Errealitatea beste era batera ikusten hasten zara». Norbere kabuz ama izateak dakarren bertigoa eta ziurtasuna, biak aldi berean islatzen dira Pilar Castellanosen hitzotan.

Madres Solteras Por Elección (MSPE) elkarteak presidentea da Pilar, orain zazpi urte euren kabuz guraso izatea erabakitzen zuten pertsonen topagune izateko sortu zen elkarte. Interneteko foro batean euren bizipe- nak eta zalantzak partekatzen hasi ziren emakume talde baten ekimenez sortu zen eta, egun, 500 kidezik gora ditu Estatu espainolean. Hego Euskal Herrian 22 dira elkartera batu diren pertsonak, batez ere euren familia eratze-ko modu hau hautatzen dutenentzat bidea ez delako erraza izaten eta dituzten behar- rak aldarrikatzeko euren errealitate- a gorpuztuko duen erakunde baten beharra sentitzen dutelako.

«Familia eratze-ko era berri- tzailea da. Ez da utzi zaituztela edo nahi ez zenuen haurdunaldi- a izan duzula; zuk erabaki du- zu libreki haurdun geratzea edo haur bat adopzioan hartzea, eta biak ala biak izan daitezke pro- zesu luze, gogor eta ekonomiko- ki garestiak. Elkar ezagutu eta hitz egiteko beharra dugu, baka- rrik ez gaudela sentitu, gure za- lantzak argituko dituen gune bat sortu eta, batez ere, hitzak izan dezakeen zentzurik ederre-

nean, erabaki hau hartu duten ‘ero’ bakarrak ez garela jakin», ziurtatu du Pilarrek.

Egun, MSPE elkarteak topa- gune hori, baina, kideak penin- tsulako geografiatik sakabana- tuta daudenez, batez ere euren webgunea (www.madressedrasporeleccion.org) eta bertako foroa (sartu ahal izateko kide izan behar da) erabiltzen dituzte harremantzeko. «Hor biltzen ga- ra haurrak edukitzea pentsatzen ari direnak zein haur koxkor- tuagoak ditugunak, hor biluzten

gara, eta hor egiten dizkiogu kontsultak elkarri. Babes sare handi bat gara». Harremanak horren birtualak izan ez daite- zen, kideak elkarren artean eza- gutu eta harremantzeko topake- tak ere egiten dituzte. Hurrengo, datorren larunbate- an, hilak 24, izango da, Bilbon. «Han elkartzeko gogoia aspaldi- tik genuen, badakigulako hango amak maiz geratzen direla kafe bat hartu edota hurrekin par- kera joateko, eta foroko izenei aurpegia jartzeko gogoia dugu».

Sara eta Pipik «dena» egiten dute euren haurrekin. Elkarrizketara ere hala etorri dira, haurrak besazpian hartuta. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



Topaketak irekiak direla na- barmendu du Pilarrek, baina jo- an nahi duenari posta bidez (asociacionmspe@gmail.com) haiekin harremanetan jartzeko eskatu diote. «Diskrezioa man- tendu nahi izaten dugu, horre- gatik ez dugu publikoki topake- ten hitzordurik agertzen», azaldu du, interesa duen oro be- so zabalik hartuko dutela ziurta- tzeaz batera.

OZTOPOAK ETA TRABAK NONAHI

Norbere kabuz guraso izatea erabaki orduko hasten dira bu- ruhausteak. «Osasungintzaren alorrean, erkidego gehienetan bikoterik ez duten emakumeek ez dute lagunduriko ugalketara- ko sarbiderik eta osasungintza pribatura joan eta salneurri oso altuak ordaindu behar izaten di- tuzte. Tratamenduak oso gares- tiak dira, baita medikamentuak ere». Oinarrizkoenak, emaile anonimoaren bidezko intsemi- nazioak, bataz beste 900 eta 1.300 euro bitarteko kostua iza- ten duela dio Pilarrek, eta *in vi- tro* ernalketaren edota obodona- zioaren (obulua ere emaile bidez jasotzea) kostuak 6.000 eurotik gorakoak dira. Adopzio- en kasuan, norbanakoei «traba asko» jartzen dizkietela baieztat- u du Pilarrek: «Beti gara biga- rren aukera».

Baina, norbere kabuz guraso izatea erabakitzen dutenen ara- zo nagusia edozein instituziota- ko leihatiletan egikaritzen da, le- gearen arabera, euren familia mota ez dela existitzen esaten dietenean. «Linbo legal batean gaudela esaten dugu, edozein la- guntza eskatzerako orduan ez gaituztelako familiatzat hartzen, dena gurasoek lan egiten duten edo ez kontuan izanik dago an- tolatuta. Beken kasuan, esatera- ko, ez dira guraso bakarreko fa- miliak aintzat hartzen, lanean ari garela hartzen dute kontuan soilik, gure kasuan etxean diru- sarrera bakarra dugula eta gehienei lanordu murrizketa es- katzea ezinezkoa zaigula kon- tuan hartu gabe. Haur eskola ba- terako beka eskuratzeko, adibidez, puntu berak dituzte bi gurasoko familiek zein guraso bakarrekoek».

Errenta aitorpena egiteko orduan ere bi gurasoko familiek 3.150 euroko murriztapena izaten dutela dio eta, guraso bakarrek, 2.500 euro ingurukoa. «Alargunen kasuan ere, bi haur badituzte familia ugari gisa hartzen dituzte, eta, gure kasuan, ez. Alderdi politiko batek azarotan kongresuan eskatu zuen hori, gainera, eta errefusatu egin dute. Beti gaude linbo horretan sartuta, eta hortik sortzen diren konplikazioen zerrenda amaiezina da», ziurtatu du.

GURASO BAKARREKO FAMILIEN LEGEA

Euren familia mota “berezia” dela onartzen dute MSPE elkarreko kideek eta, zentzu horretan, familia ugariak lege propioa duten bezala eurek ere guraso bakarreko familien legea eduki beharko luketela aldarrikatzen dute. Hori da, Pilarren hitzetan, elkarrearen aldarrikapen nagusia: «Bil daitezela hor gure berezitasunak eta izan ditzakegun behar guztiak, gehienetan behar horiek kontziliazio laboral eta familiarretik datoze la aintzat hartuta. Guretzat oso zaila da lanean egon eta aldi berean eskolaren ordutegiekin bat egitea. Ezinezkoa da laguntza pribatura joan gabe, eta haurtzainak garestiak dira. Gauzak hala, diru asko gastatzera edo lan murrizketa eskatzera behartuta gaude, eta askok murrizketa ez diogu gure buruari planteatu ere egiten. Lanpostua asko zaindu behar izaten dugu, etxe-ko diru-sarrerak bakarrik delako. Orduan, haurra gaixo badago zainduko duen norbait lortu eta gu lanera joaten gara».

Guraso bakarreko familien legearekin batera euren familia eredu onartua eta aintzat hartua izatea eskatzen dute elkarretik, «ez besterik. Gainerakoan, gu gaude elkarren artean harremanetan jartzeko eta sozialki horren bisibilitate gutxi duen familia eredu hau bistartzeko».

Elkarteak kide izateko norbere kabuz ama edo aita (egun gizonezko bazkiderik ez badago ere berdin hartzen dituzte) izateko nahiarekin aski dela azaldu du Pilarrek. Elkartean, euren kabuz ama direnak, horretarako

«Ohiko familiak, familia ugariak, langabezia dauden pertsonak, ikasleak, ezinduek, erretiroa hartua dutenak... Kategoria mordoa daude, eta gurea ez da existitzen», dio Pipik

Elkarrearen zein eredu honen aldeko hautua egin dutenen helburua guraso bakarreko familien legea aurrera atera eta sendi gurasobakarrak onartuak izan daitezela da

tratamenduan edo adopzioa tramiteetan daudenak zein bikote barruan ama izan eta bigarrenaren bila euren kabuz joatea erabaki dutenak daudela azaldu du. Elkarrearen funtzioa horiek guztiak harremanetan jarri eta sare bat osatzea da, ho-

rregatik antolatzen dituzte hurrengo larunbatean Bilbon egingo duten topaketaren tankerako ekimenak.

Zehazki, MSPE elkarreak bosgarren aldiz antolatu ditu “Ponle cara a tu asociación” topaketak. «Badakigu euskaldunak maiz biltzen direla euren artean eta haien izenei aurpegia jartzeko gogoia dugu», azaldu du Pilarrek, hilero ekintza bat antolatzen saiatu eta urtero bi bidaiak egiten dituztela gaineratzeaz batera. Bat udan, Levante aldeko apartamentu batzuetara, eta bigarrena udazkenean, urtero leku ezberdin batera. Baina, batez ere, elkartetik erkidego ezberdinetako kideak euren artean harremanetan jar daitezten egiten dute lan, «gertutasun eta babes sozial hori izan dezaten. Batzuetan, dentistarengana joan behar duzula eta haurrarekin gertatzeko lagun bat behar duzula, eta, besteetan, haurra izateko bidean egon eta emaitza negatiboa izan duzunean, ulertuko zaituen norbaitekin kafe bat hartzeko beharra duzula».

SARA ETA PIPÍ: BI KASU ERREAL

Aipatutako guztiaz badakite zertxobait Sara eta Pipik. Donostiako Uria mendiko atsedenelekuan egin dugu hitzordua. Sarak urtebeteko alaba du. Pipik, hiru urteko semea. Ez dituzte euren benetako izenak eman nahi, baina ez da euren kabuz ama izateak lotsatzen dituelako; alderantziz, harrotasunez eta normaltasunez daramate euren familia eredu, «eta normaltasun horretan jarraitu nahi dugu. Nik ez dut nire bizilagunen bizitza goitik behera ezagutzen, beraz, zergatik ezagutu behar dute eurek ni-

rea?», galdetzen dute. Euren esperientzia eta ereduak ezagutzea, aldiz, garrantzitsutzat dute: «Inportantea da jendeak gurea bezalako kasuak ezagutzea, guretzat normala den hau gizartearen normala izan dadin».

«Nere eskaera da bakarrik gure familia mota ezagutaraztea. Familia gisa onartuak izatea», aldarrikatu du Pipik, eta berari gertatutako pasarte bat jarri du adibide gisa: «Ohiko familia batetik kirol txarteletako harpidetza egiten badu, bi pertsonarena baino merkeagoa da, eta euren haurrak ere hor barnean daude. Nik urtebeterekin semea igeriketa ikastaro batean apuntatu nahi nuen. Ni bazkide naiz, baina ez naute familia-mota gisa onartzen eta haurraren kuota ez-bazkide bezala hartzen dute. Eta horrek 80 eurotik gorako gastua esan nahi du. Nik esan nien ez daukala zentzurik, ez diedala ni laguntzeko edo beherrapen berezirik egiteko eskatzen; soilik, ez nazatela diskriminatu eskatzen diet. Ohiko familiak, familia ugariak, langabezia dauden pertsonak, ikasleak, ezinduek, erretiroa hartua dutenak... Kategoria mordoa daude, eta gurea ez da existitzen», azaldu du. Halako adibideak “dozenaka” jar ditzakeela baieztatu du.

Pipik 40 urterekin erabaki zuen ama izango zela. “Orain ez da garaia” eta “lanpostua egonkortu arte itxarongo dut” tankerako esaldien artean urteek aurrera egin eta «aukera zoragarri honekin» egin zuen topo. «Zoragarria, orain mutilekin egon naitekeelako eta jada badaukat haurra; bestela badakit hor barruan betiko zerbait geratuko zitzaidala, bihotzean, halako hutsune bat». Sara beti bizi izan da bakarrik: «Oso independentea izan naiz, bidaiak eta kirolak gustatu izan zaizkit, astakeria eta tontakeria mordoa egin ditut, baina, adin batera iritsita, ‘jada honek ez nau lehen bezala betetzen’, pentsatu nuen. Modu naturalean haurdun geratu nintzen eta bi hilabete eta erdierekin haurra galdu egin nuen, jada nire bizimodu berria bisualizatzen hasi nintzenean. Oso garbi



Elkarrearen guraso eta haurrak elkar ezagutzea bultzatzen du. Jon URBE | ARGAZKI PRESS



ikusi nuen esperientzia hori bizi behar nuela, eta, bikoterik ez nuenez, zientziaren aurrerapene-
nekin ze aukera nituen galde-
tzera joan nintzen», kontatu du.

Biek ala biek onartzen dute «erraietatik» atera zitzaien zer-
bait izan zela ama izatea, ez zela
guztiz hausnartutako erabakia
izan. «Ez dakit sena, hormonak...
zer izango zen, baina ez zen arra-
zionalki erabakitako zerbait izan.
Nik sekulako hipotekatzarra
nuen, lanean istiluak, nire ingu-
ruan laguntza gehiegi ez nuela
izango ere aurreikusten nuen...
Baina orduan zen aukera», azal-
du du Pipik. Sarak ama eta aita,
biak falta ditu eta jaioterri ez
duen herri batera joan zen bizi-
tzera: «Haurra izanez gero dena
nik ordaindu beharko nuela ba-
nekien, ez zegoen alderdi ekono-
mikotik lagunduko ninduen
inor. Ez dakit nola, baina indarra
ateratzen duzu, eta, egunean-
egunean, egin egiten duzu».

Sarak 45 urterekin eduki zuen
alaba. Intseminazioarekin saia-
kerak egin bazituen ere, azkene-
an obodonazioa behar izan
zuen, horrek dakarren kostuare-
kin. «Pribatutik joatera derri-
gortuta gaude, eta, azken trata-
mentu horretan soilik, 7.000
eurotik gora utzi nituen. Oso ga-
restia da. Saio bakarra egin ne-
zakeen eta, legez, bat, bi edo hi-

ru obulu sar ditzakezu. Haurdun
geratzeko %60ko aukera nuen
eta hiru sartzea erabaki nuen.
Haurdun geratu nintzela esan
zidatenean baino poz handia-
goa hartu nuen bakarra nuela
esan zidatenean. Zer egin behar
nuen nik hiru haurrekin?».

Erabakia hartzea erraza egin
zitzaieli diote eta euren inguru-
nean ere ondo jaso zutela eraba-
kia, baina gizartean «oraindik
ere normalizatzeko asko» dago-
ela uste dute. «Senide batekin
egin nuen topo. Elizkoia da oso,
Ama Birjinaren txapa paparre-
an daramaten horietakoa. Tripa-
rekin ikusita, 'ez nekien ezkon-
du zinenik', bota zidan. Nik
ezetz, ez nintzela ezkondu esan
nion, eta azaltzen hasi nintzen.
Hark bazekien nik amarekin lo-
tura handia nuela, eta 'jakingo
balu zure amak disgustu ederra

**Familia mota gisa onartua ez egoteak «linbo
legal» batean uzten ditu sendi hauek eta,
ondorioz, dozenaka oztopo topatzen dituzte
instituzioren batera joan behar dutenean**

**«Udalekuak, zaintzarekin lotutako lekuak,
polikiroldegiak, garraioa... Horietan familia
ugarien txartela dagoen bezala gure eredua
onartzen duena ere egotea eskatzen dugu»**

Guraso bakarra izatea
gogorra dela aitortu arren,
pozak ere neurri berekoak
direla diote eta askatasuna
sentitzen dutela,
«haurraren gaineko erabaki
guztiak guk hartzen
ditugulako».
THINKSTOCK

hartuko zukeen... Haur gizara-
joa', esan zidan. Baina gutxien-
goa da; askoz gehiago dira mi-
respenez datozenak», dio Sarak.
Gauza bera dio Pipik: «Normale-
an, burutik sano dagoen jende-
ak ondo hartzen ditu halakoak.
Bizitzarekin haserretuta daude-
nak, horiek dira gehiago arazo-
ak izan ditzaketenak. Baina, iza-
tekotan, beraien arazoa da».

Alde horretatik, eurenak beza-
lako kasuak ezagutarazteko zein
“arduragabekeria” etiketa gaine-
tik kentzeko beharra jarri du
mahaigainean Sarak. «Erabakia
hartzerako momentuan gauza
asko baloratzen dituzu. Lehe-
nengoa zuk duzun desio bat be-
tetzera zoazela da. Baina, hala
sortu izanak ume honi etorkizu-
nean arazoak ekarriko dizkio?
Hori ere baloratzen duzu. Gizar-
tean hipokresia handia dago, so-
zialki gauza batzuk onartuta
daude, eta aita eta ama dituen
umea zoriontsua dela irudika-
tzen da. Gurea bezalako egoere-
tan, aldiz, haur horrek gabeziak
izango dituela ziurtzat jotzen
da, baina ni konbentzitua nago
nire haurra milaka bikoteren
haurrak baino askoz zoriontsua-
goa eta maitatuagoa izango de-
la. Garrasiak, gurasoen artean
diskusioak, banaketak... Haur
honek behintzat ez du sekula
hori biziko; jakingo du bere ama
zein den, maitatua izango da be-
re ingurunean eta, ez dakit ara-
zoak izango dituen ulertzeko
edo ez, baina azalduko zaio nola
sortu zen». «Nik ere banuen kez-
ka hori», jarraitu du Pipik, «bai-
na lehengo astean lagun batzue-
kin geundela hiru urteko haur
batek galdetu zidan, semearen
aurrean, ea non zegoen bere ai-
ta. Aitarik ez zuela esan nion eta
unean bertan, aurpegira begira,
nire semeak 'zu zara nire ama
eta nire aita' esan, besarkatu eta
musu eman zidan. Berak ez du
aitaren faltarik sentitzen».

AMATASUNAREN BARNETEGIAN

Dena ez da, ordea, dirudien be-
zain polita. Hori ere onartzen
dute. «Aske hartutako erabaki
bat da, kontzientzia eta ardura
guztiz hartzen dena, baina...
master baten parekoa da: ni bi
urtez desagertua egon naiz», dio

Pipik, barre artean. «Niri kontzi-
liazioa konplikatua egiten ari
zait. Ardura postu bat daukat
eta murrizketa eskatu behar
izan dut, ez naizelako iristen. Le-
hen ez neukan ordutegirik, or-
duak eman nitzakeen lanean ni-
re lana oso gustuko dudalako,
eta orain ez naizela nire lana on-
do betetzen ari sentitzen dut.
Nire lanaren zati bat mutil bat
ari da egiten, haurrak bere
emazteak zaintzen dituenek au-
kera hori baduelako». Hala ere,
Sarak «pribilegiatua» dela senti-
tzen du, berak murrizketa eska-
tzeko aukera izan duelako. Bai-
na ez da ohikoena. «Nik ezin dut
murrizketa eskatu, ez zaidalako
iristen. Bikoteen kasuan, nor-
malean emakumeek eskatzen
dute murrizketa eta bi soldate-
tatik bati zati bat kentzen diote.
Horren portzentaje bat Jaurlari-
tzak ematen dizu bueltan. Gu
amak soilik garenez, soldataren
herena kentzen digute miseria
bat emateko», dio Pipik.

Lanordua murriztu ala ez, la-
nean dauden artean haurra no-
rekin utzi izatea ere buruhauste
handia dela diote. «Oro har, di-
rutza uzten dugu haurtzaine-
tan. Nik, hilean 600 euro ingu-
ru bai», dio Sarak. Lehengo
urteko uda oroitu du Pipik: «Sei
astetan 1.300 euro utzi nituen
gazteleku eta haurtzain artean.
Pasada bat da. Diru asko edo la-
guntza handia behar duzu, eta,
biak badira, hobe».

Lana eta bizitza pertsonala uz-
tartzeko zailtasunez gainera,
amatasun eredu honek egunero-
kotasunean lotura handiak da-
kartzala ere onartzen dute. «Dee-
eena egiten duzu umearekin»,
dio Pipik. «Ginekologoarekin
errebisioa dagoela? Ba zurekin
eraman eta ea erizainak entrete-
nitzen duen...», Sarak. «Nik bi ur-
te daramatzat ginekologora joan
gabe eta ile-apaindegia... Zer da
hori? Neronek mozten diot ilea
neure buruari», Pipik, barrez.
«Lanagatik haurra norbaitekin
utzi behar badut topatzen dut
jendea, baina, adibidez, zinema
ra joan nahi dudalako haurra
inorekin uztea... Beharra duzu-
nean jendeak erantzun egiten
du, baina askotan ez dute uler-
tzen bakarrik egoteko beharra

Familiako zutabe bakarria izatea gogorra dela dio Sarak: «Noski negar egiten dugula. Badituzu amore emango zenukeen uneak, baina, ez dakit nola, indarra ere ateratzen da»

«Gero eta handiagoa da bakarko guraso izateko hautua hartzen dutenen kopurua eta ziur nago hemendik hamar urtera oso ohikoa izango dela», ziurtatu du Sarak

ere badugula. Normalean bik egiten dutena bakarka egitea hautatu dugu. Bai, gure hautua izan da, baina gogorra da», dio. Hala ere, Sarak eta Pipik barre artean oroitzen dituzte une txarrenak ere. «Urte eta erdian ez dut sekula bi ordu baino gehiago lo egin. Inoiz. Badakizu zer den lanera joatea garuna saturatua eta egitekoak bueltaka daramatzazula? Horrela urte eta erdi. Noski negar egiten dugula. Badituzu amore emango zenukeen uneak, baina, ez dakit nola, indarra ere ateratzen duzu», ziurtatu du Pipik.

Elkartea esperientziak trukatu eta euren kabuz guraso izatea erabaki dutenen errealitatea ezagutzeko garrantzizkoa dela diote, baina, batez ere, instituzioetan eragin eta “linbo legal” horretatik ateratzeko bitarteko baliagarria dela uste dute. «Udalekuak, zaintzarekin lotutako lekuak, polikiroldegiak, garraioak... Horietan guztietan familia ugarien txartela dagoen bezala guraso bakarreko familiena ere egon beharko litzatekeela uste dugu. Behar horiek onar daitezela eta batez ere gertuko instituzioen kasuan, udal eta diputa-

Lana eta zaintza uztartzea ez da erraza izaten. Etxean soldata bakarria sartzen denez, gutxi izaten dute lan murrizketa eskatzeko aukera eta haurraren zaintza buruhauste bilakatzen da.

THINKSTOCK

zioetan, kontuan hartuak izan gaitzela. Horiek direlako egunerokotasunean eragiten digutenak», ziurtatu du Pipik.

Sararentzat, bisibilitatea da gako. Gisa honetako elkarte zein errealitateak ezagutarazteko baliabideak jarri behar direla uste du, hortik etorriko baita normalizazioa. «Gero eta handiagoa da bakarka guraso izateko hautua hartzen dutenen kopurua eta ziur nago hemendik hamar urtera oso ohikoa izango dela. Egun askok meritu handia dugula errepikatzen digute. Nik ez dut uste horrela denik. Nire kasuan lan ona daukat, ekonomikoki justu nabil baina moldatzen naiz... Hori ez da meritua. Meritua du ez dakit zenbat haurrekin alar-gun geratu eta aurrera egitea lortu duen horrek. Hori drama bat da, eta hortik ateratzeak du meritua. Hau ez da drama bat; hau aukera pertsonal bat da».

Bizimodua!

Josu Imanol Unanue

Goiz esnatu eta lanera heltzeko abiadan tren hartzea da nire erronka nagusia. Badakit nire lagunentzat arraroa dela nik autoarik ez izatea eta, ahal dudan guztietan, garraio publikoa erabiltzea. Hala esaten didate behintzat. Badirudi gure herrian normalena kalean milaka auto izatea dela. Badakit, baita ere, aparkaleku gutxi daudelako edo daudenak ez direlako nahiko gero eta kexa gehiago daudela, baina, inor konturatu al da zenbat espazio kentzen diguten autoek herritarro? Bakoitzak, gutxienez, 6 metro koadro. Beraz, gure herrian 9.000 auto badaude, 54.000 metro koadro daude haienentzat, metro koadro “mugikorak” gainera.

Orain gutxi, antzinako argazki bati erreparatu eta kalean zenbat jende egon ohi zen ohartu nintzen, haur pila bat jolasean eta jendea pasioan. Argazkiko kale hartatik pasa naizenean ikusi dut egun ez dagoela horretarako lekurik. Dena autoz beterik dago!

Herriak ez dira oinezkoetan pentsatuta diseinatzen, baizik eta autoetan pentsatuta: kale zabala-goak, aparkalekuak, zebra-bide gutxi batzuk oinezkoentzat... Autoek agintzen dute.

Badakit garraio publikoaren alde egiten dugunok gero eta arraragoak garela, baina horrela egin ezean jai dugu! Autoa ez da autoa bakarrik, baita kutsadura, trafikoa, zarata, txatarra... ere, guztiok pairatzen dugun arazo orokorra. Autoaren alde egitean askoren aurka-ko jarrera hartzen dugu, agintariek ez baitute garraio publikoa bultzatzea beharrezkotzat jotzen.

Bitartean, gutxiengoari garesti ateratzen zaigu garraio publikoa erabiltzea, kaleetan autoaren diktadura modernoa indarrean dago eta herriak ez dira pertsonentzako, baizik eta autoentzako. Eskerak ez dauden etxeetan sartzeko edota eskailerak igotzeko diseinatura. Hau da hau bizimodua! •



XV. UDAKO TOPAKETAK

Hik Hasik eta EHUK 30 ikastaroko eskaintza zabala atondu dute uztaileko

Duela urte pare bat Europa mailan egindako ikerketa baten emaitza da: hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko 3,9 euroko irabazia lortzen da. Dena dirutan neurtzea maite duen sistemak oso kontuan hartzeko datua behar luke, baina ez da horrela. Inbertsioak egiteko orduan, hezkuntzari bestelakoak gailendu ohi zaizkio: azpiegitura handiak, gastu militarrik... Arlo sozialetik begiratuta, «hezkuntzan inbertitzen denak ematen duen etekina ezin da dirutan neurtu. Gizarte batek garatzeko ezinbestekoa du hezkuntza», iritzi dio Hik Hasi egitasmo pedagogikoko kide Joxe Mari Auzmendik.

Horregatik, Hik Hasik eta EHU Euskal Herriko Unibertsitateak beren ahalegina berriz ere hezkuntzan inbertitzea erabaki dute, eta hamabosgarrenez Udako Topaketak antolatu dituzte uztailearen 2an, 3an eta 4an, Donostian. Irakasleei, hezitzaileei eta hezkuntza gaietan interesa duen orori zuzenduriko 30 ikastaro antolatu dituzte.

Gaien aldetik eskaintza oso zabala osatu dute. Auzmendiren hitzetan, «aurten eskaintza bereziagoa egin dugu irakasleen formakuntza propioan. 'Metodo berriak prestakuntzan' izeneko ikastaroa dago, esaterako. Genevako Unibertsitateko Itziar Plazaola, Mondragon Unibertsitateko Matilde Sainz Osinaga eta EHUKo Uri Ruiz Bikandi ari dira gai horrekin lanean. Hiru unibertsitate horiek elkartu eta irakasleen beraien praktika ikertzen ari dira, horren inguruko hausnarketa bultzatuz. Finean esaten dutena oso argia da: norberak ikusi behar du nola lan egiten duen bere jarduna nola hobetu jakiteko. Metodo nahiko berritzailea da eta oso interesgarria».

“Pedagogia Sistemikoa ikasgelan” izeneko ikastaroa ere nabarmendu du Auzmendik. «Orain arte pedagogia sistemikoaz aritzean gaztelaniaz egin izan da, eta aurten lehen aldiz euskaraz egingo da gai horri buruzko ikastaro bat. Gero eta

 **HEZKUNTZA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Hezkuntza komunitatearen tasunetako bat omen etengabeko formakuntza eta ikasteko grina. Horren harira, hamabosgarrenez Udako Topaketak antolatu dituzte Hik Hasik eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Gaitegi oso zabaleko 30 ikastaro atondu dituzte, irakasle, hezitzaile eta beste askorentzat intereseko.



Murrizketak eta krisia alorra gogor astintzen ari diren honetan, Udako Topaketek hezkuntza komunitatearen premiei erantzun nahi diete.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

info+
Udako Topaketak:
www.hikhasi.com/topaketak • **Uztailak 2,3 eta 4, Donostian:**
Guztira 30 ikastaro eskainiko dira • **Izena emateko epea:**
Maiatzaren 1etik 31ra bitartean

indar gehiago hartzen ari den pedagogia da; ez du bakarrik ikasgela kontuan hartzen, haurrak etxetik dakarrena ere begiratzen du, etxea eta eskola lotuz eta haurrari bere osotasunean begiratzuz», jarraitu du Hik Hasi-ko ordezkariak.

Nafarroako Gobernua euskararen kontrako eraso betean dagoen honetan, nabarmentzekoa da Nafarroako Eskola Kontseiluak Lizarrako ikastola aukeratu izana oinarritzeko konpetentzietan egiten duen lanagatik. Hartara, Lizarrako ikastola

izango da Nafarroako ordezkaria Estatu mailako topaketa batzuetan. Lizarrako ikastolako zuzendaria, Josu Sueskun, Udako Topaketetan egongo da “BLOK-Ubagua” deituriko proiektu horren berri bertatik bertara emateko.

«Bada beste gai bat garrantzitsua egunotan: gero eta eskola libre gehiago ari dira sortzen, Euskal Herri osoan barna. ‘Eskola libre eta demokratikoak’ izeneko ikastaroan horiei buruzko gogoeta egingo da», segitu du Joxe Mari Auzmendik.

Hungariako Pikler-Loczy institutu prestigiotsuko hezitzaileek ere parte hartuko dute Donostiako hitzorduan. «Urte batzuk daramatzagu elkarlanean eta metodo horri buruzko ikastaroak ematen. Lehenengoz parte hartuko dute Udako Topaketetan eta hiru eguneko ikastaroa izango da. Gaiaren mamia ‘bortxakeriarik gabeko hezkuntza’ izango da», gaineratu du.

Hezkuntza emozionalak ere tarte zabala izango du, «emozioak ez bakarrik ikasketarako, baita harremanetarako eta hizkuntzarako ere. Euskara transmititzeko eta norberak bere sentitzeko bide berriak jorratzen ari dira eta horri buruzko ikastaroa ere izango da. Urtxintxak emango du emozioetan oinarritutako hizkuntza tailerra».

Hezitzaile eta irakasleek ez ezik, edozeinek topatuko ditu intereseko gaiak ikastaroen zerrendan. “Kalea esploratu, eraldatu eta ikasi”, “Nerabeak eta hezkidetzak”, “Haurrentzako masajea”, “Pentsamendu autonomia eta sortzailea nola landu” eta “Euskal mitologia eskoletan”, besteren artean.

Aurten lehenengoz Irrien Lagunak Klubaren Gizartegintza egitasmoarekin elkarlanean bost ikastaro berezi antolatu dituzte: “Zeinu hizkuntza”, “Kirol egokitua eta kirol irakaskuntza inklusiboa”, “Harrerako haurren hezkuntzari begirada sakon eta sistemikoa”, “Animaliek lagundutako esku-hartzeak” eta “Irria aldizkaria gelan”.

Berritasun dezenterekin datoz, beraz, aurtengo topaketak. Izena emateko epea zabalik da dagoeneko eta maiatzaren 31n itxiko da. Izen-ematea oso martxa onean omen doa eta aurreko urteetako zenbakiak gaitziteza espero dute. «Normalean 400 bat lagun inguru elkartzen dira, baina aurten 500-600 izatera irits gaitzek», esan du Joxe Mari Auzmendik.

ARTELIBURU21

Artista-liburuen eta arte-koadernaketaren inguruan sortutako elkarte abian da

 **KULTURA /** xole.aramendi@gaur8.info

Denok izan dugu libururen bat esku artean. Gutxiago dira artista-liburu batez inoiz gozatu dutenak. Ikusi, irakurri, entzun, usaindu... egin daiteke. Artelanak dira bere horretan. Egileari zein hartzaileari irudimena bezain zabala den leihoa zabaltzen zaie. Artista-liburuez gain arte-koadernaketa ere lantzen dute arteliburu21 elkarteak.

Bi zaletasunen inguruan biltzen dira arteliburu21 elkarteko kideak: liburu eta artea. «Zehatzago esanda, liburuaren arte eta ofizioekiko zaletasunak biltzen gaitu», adierazi dute. Ezinbestean, liburuz eta artelanez inguratuta aurkitu ditugu. Pozarren. Ez du ohiko li-

burutegi baten itxurarik. Arte tailerra da. Lanerako materiala ikus daiteke han-hemen. Eta nola ez, sormen lanak, zein baino zein bitxiagoak eta ederragoak. Liburua eskuan duela norbait ikustea gero eta ezohikoagoa den garaiotan, liburuari berari balioa ematen diote, objektu bezala. «Hori garai hauetan ia nostalgikoa da», esan dute.

Luis Barrios, Eluska Kortajarena, Eva Rodríguez eta Silvia Schäffer, eurek egindako lanez inguratuta. Horman duela bi urteko Olatu Talkan egindako liburu erraldoiaren zatia ikus daiteke.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Luis Barrios arte-koadernatzailerak da lanbidez. Pasioz hitz egiten du. Bizi duen bezalaxe. «Hogeiturtetik gora daramatzat artista-liburuen eta arte-koadernaketaren alorrean lanean; nire bizitza da», kontatu du. Irakasle modura ere esperientzia luzea du. Makina bat pertsonari irakatsi dizkie arte-koadernaketaren sekretuak hemezortzi urtez Oretako Xenpelar Etxean. Hantxe ezagutu zuen Eva Rodríguez, duela lau zapabost urte. Arte grafikoen enpresa batean egiten du lan Rodríguezek. Norbaitek pentsa lezake eguna gauza bera egiten ematen duela, eguneroko lanaldia bukatu ondoren ere koadernaketa tramankuluak izaten baititu eskuan. «Batzuetan, lankideek, harrituta galdetzen didate: 'Horretan jarraitu behar al duzu?'», kontatu du irribarrez. «Baina ez du zerikusirik. Nire eguneroko lanean koadernaketa industrialean aritzen



naiz. Hau artisau lana da. Gauzak beste fintasun batekin egiten dituzu. Gainera, ez duzu presaka datorren bezerorik», azaldu du.

Barriosen «eskuzabaltasuna» nabarmendu du. Izan ere, bere ezagutza besteekin partekatzeke batera erreparorik ez du. Ondo dakite Donostiako Arteko arte plastikoen tailerrean ematen dituen ikastaroetan parte hartu dutenek.

Silvia Sehäffer da euretako bat. Aita alemaniarra eta ama tolosarra ditu. Sttutgarten jaio zen, nahiz aspalditik Donostian bizi den. Sormenerako grina oso berea du. Akuarelak eta argizari lanak margotzen ditu.

Artista-liburuak bide berriak eskaintzen dizkio. «Bizioa da», aitortu du. Ia oharkabean sortu zuen lehenengoa. «Pixkanaka sortuz joan zen», dio.

Eluska Kortajarena ere gurekin da. Arte Ederrak ikasia, erretratuak margotzen ditu. Arteko arte plastikoen tailerreko zuzendaria da eta lokal propiorik ezean, bertan eskaintzen die arteliburu21 elkarteko lagunei biltzeko tokia. Arteko arte galerian laguntzaile lanak egiten ditu eta bertan artista-liburuak gertutik ezagutzeko aukera izan du.

KONTZEPTUAK ARGITUZ

Gure artean ezezaguna da artista-liburuaren kontzeptua. «Jendeari zer egiten dudan kontatzen diodanean normalean ez didate ulertzen. Margolaria, eskultorea... zarela esan eta denek dakite gutxi-asko zertan ari zaren. Baina artista-liburua... ‘Liburua bai, baina aurrekoak zer esan nahi du? Zer espazio hartzen du?’, galdetzen dute», kontatu du Barriosek.

XX. mendean garatu zen artista-liburua. Artelana da bere horretan, edukia edozein dela ere. Ohiko liburuan ditu sustraiak, baina ez ditu ohiko liburuaren mugak zertan onartu. «Papera erabiliz, forma karratua duen betiko liburuak daude, batetik. Etxeko apalategian, ikusi batera, ez zenuke beste liburuetatik desberdinduko. Baina beste lan batzuek gutxi dute ohiko liburutik. Liburuaren munduarekiko erreferentzia poetikoa, sinbolikoa

dute, baina ez dute muga zehatzik», argitu dute elkarteko kideek. «Hemen ditugun lanen artean gutxi dira ohiko liburuak», diote, mahai baten gainean ikus daitezkeen lanak seinalatuz. Artista bakoitzak bere sormen prozesuan duen askatasunaren isla garbia dira.

Artista-liburuak ez dira beti ulertzen. «Margolaritza abstraktuarekin gertatzen den bezala, badira, artelana ulertzen ez dutenez, mespretxatu egiten dutenak. ‘Honek zer du liburutik?’, galdetzen dute. Guri ez digu axola. Lan horrek sinbolikoki edo plastikoki transmititzen duena interesatzen zaigu guri».

Ezagunagoa egiten zaigu koadernaketaren ofizioa. Baina artekoadernaketa urrunago doa. «Koadernatzaileak esku artean duen

liburuaren gaineko interpretazio artistikoa egiten duenean hasten da», zehaztu dute.

Abiapuntua beste norbaitek egindako liburua da eta fidelotasuna zor dio. «Artekoadernatzaileak nahiko muga zehatzen barruan mugitu behar du. Biblia bat hartzen badut, adibidez, koadernaketa egiteko, bere edukiak mugak jartzen dizkit. Bere izpiritua jaso behar dut, ezin diot traizio egin», dio Barriosek.

EZAGUTZAREN GALERA

Koadernaketa lanaren atzean dauden arte eta ofizioen garrantzia nabarmendu du Eva Rodriguezek. «Ofizio asko dira koadernaketari lotutakoak. Eta zoritxarrez, galtzen ari dira. Neurri batean, erlojuaren kontra ari gara. Izan ere, zenbat per-

tsona geratzen dira honetaz dakitenak? Frantzian, adibidez, askoz gehiago gorde da tradizio hori», dio. Horren harira, zera aitortu du: «Txundituta geratu nintzen mendeetan zehar garatu diren teknikak ezagutzean. Hainbeste esparru lantzen dituzu: larru bozelketa, grabatua, estanpatua...».

«Geratzen diren tailer apurrak ixten badira, akabo! Betiko galduko da ezagutza», ohartarazi du albotik Barriosek.

Badira koadernaketa lanak egiten hasi eta artista-liburuak lantzen bukatzen dutenak. Badira artekoadernaketa bakarrik egiten dutenak. Elkartean denetarik dago. Eluska Kortajarenak oraindik ez du artista-libururik sortzeko pausua eman. «Badakizu zer den onena? Zuk aukeratzen duzun materiala erabiliz nahi duzuna egin dezakezula. Diziiplina guztiek dute kabida».

Barrios bat dator: «Ez dut ezagutzen hainbeste ofizio eta jakinduria biltzen duen beste objekturik. Ez dago artista-liburuan sartzen ez den diziplinarik. Dena kabitzen da: arte grafikoak, musika, margolaritza, argazkigintza, eskulturgintza, poesia, literatura, ekoizpen elektronikoa, koadernaketari lotutako ofizioak... Usaindun liburuak ere egin daitezke».

BALIORIK EZ

Euskal Herrian ezezaguna izateak ez du esan nahi lantzen ez denik. «Are gehiago, nik esango nuke ez dagoela artistarik era horretako libururik osatu ez denik», esan du Kortajarenak.

Kontua zera da, artista askok ez diotela baliorik ematen. Zirriborrokoaderno soiltzat hartzen dute. Hori izan daiteke ezezagutzaren atzean dagoen arrazoietako bat. Horrekin batera, oso bakanak dira artista-liburuak erakusgai jartzen dituzten arte galeriak Euskal Herrian. «Zentzu horretan, Arteko galerian oso lan polita ari da egiten Cristina [de la Fuente]. Ireki zuenetik hasi zen artista-liburuaren erakusketak antolatzen», nabarmendu du Kortajarenak.

Hogei kide inguru dira momentuz arteliburu21 elkartearen (www.arteliburu21.com). Luis Barriosen aspaldiko nahia bete du.

Goiko eta ezkerreko irudietan artista-liburuen hainbat adibide. Behean, eskuinean, artekoadernaketa prozesuaren une bat.

Jon URBE | ARGAZKI PRESS





Luis Barrios, lanean, Arteko arte plastikoen tailerrean, Donostiako Gros auzoan.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

«Modu kolektiboan zerbait egiteko gogo neukan. Gipuzkoan badira artista liburuak beren kasa egiten dituztenak baina ez dago inolako esperientzia kolektiborik. Zergatik ez geuk egin? Bizkaian, Portugalete inguruan talderen bat badago. Iaz oso erakusketa polita antolatu zuten, baina Euskal Herrian, oro har, apenas ezer dagoen», adierazi du arte-koadernatzaileak.

Indarrak batu nahiak bultzatu du. «Sendo sentitzeko, elkarrekin ekoitzi eta hausnartzeko bide ematen du elkarrekin, baita egitasmoak planteatzeko ere», Barriosen esanetan. Elkarrekin bidez jendartean ikusgarritasuna lortutako dutelakoan daude. «Esparru artistiko-kulturalean tokia egitea da asmoa», esan du.

Antolatutako lehen topaketak eta arteliburu21 elkarrekin sorrera bera elkarrekin eskutik etorri dira. «Bidaia bat liburuaren arte eta ofizioetan barrena» izenburupean martxoaren 27tik apirilaren 1era egin zituzten jardunaldiak. Pozik daude lortutako emaitzarekin. Helburuak bi ziren: batetik, elkarrekin bera plazaratzea, eta, horrekin batera, artista-liburua eta

arte-koadernaketa ezagutaraztea. Errenteriako Merkatzuzarren egin ziren topaketak. Euskal Herriko lehenak izan dira. «Erakusketa txikiak egin izan dira, baina ez hain topaketa zabalik».

Artista-liburuen aniztasun bertatik bertara ikusteko aukera izan zen. Bertaratu zirenek elkarrekin kideek zein artista gonbidatuek egindako lanak ikusteko aukera izan zuten, 200 inguru. Mahai gainean zein horman zintzilik erakutsi zituzten artelanak, ohiko mugak txiki geratzen diren seinale.

200 LAN INGURU

Heldu zein txikientzako tailerrak, hitzaldiak, mahai inguruak... denetarik antolatu zuten. «Merkatzuzar leku ederra da. Oso handia da, argitsua, eta guretzat ezin aproposagoa. Hainbeste argitalpen izanik, han guztiak oso modu egokian ikusi eta preziatzeko aukera izan genuen», nabarmendu du Silvia Sehäfferrek.

Gaur egun mugatua da arte koadernaketaren munduan sartzeko aukera. Gipuzkoan, esaterako, bi dira tailerrak: Donostiako Udalak antolatzen duena eta Arteko

tailerrarena. Barriosek eta Rodriguezek ez dute ezkutatu Oleretako Xenpelar Etxeko tailerra bertan behera geratu izanak eragiten dien tristura. Izan ere, Barriosek irakasle lanak utzi zituenetik inork ez du hartu erreleboa. «Beharrezko ekipamendu guztia hor dago, zain. Atea itxita, hiltzen ari da. Profesional bat behar da, eskolak emateko profil egokia duen norbait; eta ez dago inor», esan du Rodriguezek.

Arte-koadernaketa ikasteko interesa egon badago. «Pentsa, bukatu gabe genituen lanak amaitzen beste urtebete eman genuen tailerrera joanez, irakas-

«Arte-koadernaketari lotuta teknika eta ofizio asko daude. Eta, zoritxarrez, horiek galtzen ari gara. Neurri batean, erlojuaren kontra borrokan ari gara»

«Ez dago bertan sartzen ez den diziplinarik. Dena kabitzen da: arte grafikoak, margolaritza, marrazkigintza, argazkigintza, eskulturgintza, ekoizpen elektronikoa, musika, poesia...»

lerik gabe». Rodriguezen garaian hogeitabat ikasle ziren, baina tailerrean 35 ikasle izatera iritsi zen Barrios. «Talde bati ezezkoa eman behar izan nion, ezin nintzen iritsi. Denetarik zegoen, baziren 20 urtez azpikoak eta 60 urtetik gorakoak ere bai», adierazi du.

Etengabeko ikasketa prozesua da. Baita Barriosentzat ere. «Beti. Ikasleek zirikatu egiten zaituzte, gainera. Asko ikasten dut eurekin», dio. Bere esanetan artista-liburua ezin aproposagoa da talde lanerako. «Zure lagunekin egin dezakezu eta denen artean gozatu!».

Donostia 2016 egitasmoari lotutako Olatu Talkan egindakoa da adibidea. Duela bi urteko jaian «El gran libro de la crisis» egin zuten eta hilaren 25erako deialdia egin dute beste liburu erraldoi bat burutzeko. Alderdi Ederren da hitzordua eta esku denak ongi etorriak izango dira.

Ez dute uste arte-koadernaketan aritzeko abilezia berezirik behar denik. «Sormen artistikoa bereziki landu gabe zutenak ikusi ditut oso gauza ederrak eta interesgarriak egiten», adierazi du Kortajarenak.

«Teknikak ezagutuz eta gutxieneko laguntzarekin zer egin dezaket ikusten dutenean aurrera egiten dute. Ordura arte ez zuten irudikatu ere egiten!», gaineratu du Barriosek. Aurrera begira dituzten ideien artean ateneo artistiko-kulturala sortzearena aipatu du. «Xenpelarren egin genuen bere garaian. Bakoitzak bere ezagutza partekatzen zuen. Laburra baina oso esperientzia polita izan zen», bere esanetan.

Artista-liburuetan eta arte-koadernaketan interesa dutenek Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean dute egiten dutena erakusketa batean ikusteko aukera. «Erakusleio ona da. Topaketetako lanetatik 40 inguru aukeratuko ditugu», azaldu dute. Maiatzaren 9tik 31ra izango da zabalik.

Ondoren, ekainaren 6tik 8ra Madrilgo Mas Que Libros artista-liburuen azokan (www.masquebroseria.com) erakutsiko dituzte liburu etako batzuk. «Milaka pertsona biltzen da», adierazi dute.



Gorka Zozaia
Kimikaria

Urteurren beste borroka

Ez dakit denboraren azele-
ratzearen seinale izango
ote den, edo besterik ba-
rik, urteak dituen 265
egunak gutxiegi direla
mundu zabalean, alor
anitzetan, zabalik diren borroka
guztientzat. Maiatza ere hilabete
mugitua izaten da eta horrek ere
izango du zerikusirik asteen, bost
egunen buruan, borroka beste urteu-
rren pilatzeko. Izan ere, ospakizun
gutxi topatzen da efemerideetan, eta,
hala, egun seinالاتu bakoitzaren atze-
an, aldarri bat, borroka bizi bat, izan
ohi da.

Nola heldu naizen urteurren anda-
na honetaz jabetzera ere kurio-
soa izan da. Aurrekoan eztabaidan izan
nintzen lagun batekin 15-M horretaz
zer ote den gaur eta ea "M" hori maia-
tzagatik edo martxoagatik ote zuen.
Maiatzagatik zela ikusi eta gutxira,
aste honetan bertan, 15ean
bertan, euskal preso politikoei
ezartzen zaien dispertsioaren
urteurrena dela jakin dut, aur-
ten mende laurdena betetzen
delarik. Kasualitateak jakin-
mina pizturik, Wikipedian
egun honek beste urteurrenen
bat jasotzen ote duen begira-
tzen jarri nintzen, eta, behin
horretan jarrita, inguruan di-
ren egunetakoak ere begiratu
nituen.

**Hamabostak berak, nazioarte-
ko bi egun jasotzen dituela
ikusi nuen lehenik, familiarena
eta kontzientzia-eragozpena-
rena.** Kointzidentzia makabroa
otu zait, azkenengo 25 urteotan
dispertsioak hamasei senide eta
lagun hilik utzi dituenean, eta,
oraindik ere, ehunka direnean
erruleta errusiar horretara kon-
denatuta direnak. Hamaseiak
nazioartean data seinalaturik ez
digu uzten, baina hamazazpiak,
berriz, artikulua hau argitaratzen
den egunean bertan, kolore ani-
tzeako aldarria dakarkigu. Alde
batetik, LGBT ikurrak beste kolo-
re, gaurkoa Homofobia eta

Transfobiaren Aurkako Nazioarteko
Eguna baita, 1990ean Osasunaren Mun-
du Erakundeak homosexualitatea buru-
ko gaitzen zerrendatik ezabatu zuenetik.
Ez dago esan beharrik ospatzeko gutxi
dugula gaur-gaurkoz, besteak beste,
transexualitatea psikiatria manualetan
mantentzen denean.

**Egia zahar horiek guztiak birzikla-
tzeko egun aproposa ere bada gaur-
koa, izan ere, Birziklapenaren Na-
zioarteko Eguna ere bada gaurkoa.**

Ez galdetu zergatik: Ecoembesen ira-
garki batekin topo egin baino lehen,
ez dut egun honen zergatian gehiago
sakondu nahi izan. Nahiago izan dut
hurrengoari tira, gaurkoa ere, Teleko-
munikazio eta Informazio Jendarte-
ren Nazioarteko Eguna baita, hainbat
herrialdetan Interneten Eguna ere ba-
dena. Aurtun lelotzat "Banda zabala
garapen jasangarriarentzat" hartuta,

informazio eta komunikazio teknolo-
giek duten eragin sozial eta ekonomi-
koaren gaineko hausnarketa bultza-
tzea ei da xedea.

Izen horrekin ez diot gaiari usain
onik hartzen, baina, tira, ekingo diot
azkenean telekomunikazioen iraul-
tzak dakarren hausnarketari. Nire us-
tez, berriz ere ezer ospatzeko baino,
borrokarako ildo argi bat markatzen
baitu komunikazioaren paradigma al-
daketak.

Gaur-gaurkoz, deskribatzen ere as-
matzen ez dugun aldaketa, sare sozial
digitalak urte batetik bestera puztera
edo husteraren eramanen dituenen, herri-
tarren arteko harremanak eraldatzera
daramana, eta, nire ustez, bereziki,
sozializazio prozesu kualitatiboki be-
rria eskaintzen ari dena gaztetxo-
entzat, horrek dituen inplikazio kolekti-
bo eta baita indibidualekin, hasi
identitatearen eraikuntzatik eta gara-
pen kognitiboraino. Nago, itxuraz soilik
aldaketa teknolo-
gikoa den honek, sakoneko
aldaketa sozioekonomiko eta
politikoa ekar/lagun ditzake-
ela, eta, gauzak ongi eginez
gero, herritarren loraldi bat
sor litekeela.

**Eta loraldiak ospatzeko ere
ez dirudi egun txarra gaur-
koak.**

Kultura galegoaren *re-
xurdimento*-a ospatzen da
gaurre Galizian, Letra Galegoen
Egunean. Kuban, berriz, Neka-
zaritza Erreformaren Eguna
ospatzen da. Letrak eta iraul-
tza bat hartuta, aitzakia bikai-
na dut artikulua ilustratzen
duen Eva Forest idazlea gogo-
ra ekartzeko. Etzi egingo dira
zazpi urte utzi gintuenetik,
eta, hain zuzen ere, Eva Forest
bera eta 88 urte bete berri di-
tuen Alfonso Sastre omentze-
ko, hitzordua daukate jarria
astelehenean bertan Honda-
rribian. Urteurrenak katramil-
du arren, denak borroka baka-
rrera ekartzeko balio beza
behintzat Sastre-Forest bino-
mio eredugarriak! •



Alfonso Sastre eta Eva Forest, aspaldiko argazki batean. GAUR8

{ koaderno } Kattalin Miner

Hurbileko polizia maitea

Egiatik Donostiako Erdialdera noala, edo Parte Zaharrera, bide horretan bakarrik, nahi nukeen baina polizia gehiago ikusten dut. Aspalditik nauka honek larrituta, izan ere, Ertzaintzaren patruila bat edo bi, batzuetan konejera batzuk (ez dakigu zer maniobra garrantzitsutan), nola ez, udaltzaingo maiteak, naranjitoak “zer edo zertan”, eta, bukatzeko ginda, Bulebarrean edo hortik barrena, ezberdintzen zailak diren udaltzain edo zipaio pare pasieran. Hauek den-denak hamabost minutuko ibilaldian, hauek denak gure zerbitzura omen.

Hiriak bi hiritar motetan banatu daitezke: polizia ikusi eta seguru sentitzen diren horiek, eta polizia ikusi eta zer edo zer txar egin ote dugun pentsatzen hasten garen horiek; seguru sentitzetik oso urrun gauden horiek.

Lagun batek esaten zuen, “bakearekin” batera gizen-tzen hasi ziren lehenengoak bizkartzainak izan zirela, utzikieriaz, erlaxatuta bezala, baina logikak agintzen dueneraino haiekin Lanbide edo INEMeko ilaretan topo egin dugu maiz. Ertzaintza eta bestelako “gorputz polizia-lek” orde, gizendu badira ere, ez dituzte Lanbideko ilarak loditu, dirudienez, kaleak haiekin betetzea askoz ideia hobea iruditu zaie batzuei.

Pentsatuko dute batzuek agian, hori dela “elkarbizitza eta normalizaziorako” bidea: poliziarekin kafe bat hartzea. Urkulluren gobernuak hainbeste hurbildu nahi izan du polizia hiritarrongana, literalki eta fisikoki alboan jartzea otu zaiola, gure balizko segurtasunaren izenean.

Urrunago joanda, Madrila hain zuzen, Esperanza Aguirrek argitu dizkigu dudak: polizia matxista omen da. Zorionak Espe, ongietorri zapalduon klubera. Polizia ez da matxista, polizia patriarkala da. Polizia estatuen, edo edozein instituzioren, indarkeriaren monopolioa exekutatzen duen hori da. Polizia, lege eta izatez, kalean barrena gertu izanez zure gainetik dagoen “autoritatea” da. Aitatxo ari da kaleak zaintzen, dirudienez aitatxo estatua ari da gugana hurbiltzen.

Polizia da sinbolikoki hil behar litzatekeen lehen instituzioa, polizia da gorputz injustuena, lege kanpokoe-na, hiltzaileena, inpuneena, garestiena, absurdoena. Po-

lizia zerbitzari harroputza da, Virginie Despentesez zioen bezala, hotelaren jabe dela uste duen langile sumiso harroputza da polizia. Esklaboen buru den esklaboa, McDonalds bateko enkargatua, boterea hartzen duen ahul hori.

Eta hara non, bake garai hauetan kalean barrena nahikoa polizia ez badabil jada, non ikusten dudan Estatuaren, kasu honetan Jaurlaritzaren, perbertsio handiena: Ertzaintzaren filak handitzeko iragarki bat. Hara non, berdintasunaren izenean agian, iragarkiaren protagonismoa andrazko bati eman dioten. Polizia gehiago behar al dugu? Gehiago maiteko al dugu polizia andrazkoa bada? Gertuago sentitu agian? Eta, ez al dago nahikoa polizia bete lanean jada? Ez al dago nahikoa polizia sistema judiziala bera kolapsatzen denuntzia tontoenekin? Ez al dago nahikoa polizia gasolina gastatzen gure herri eta hirietan patruilatzen? Badirudi ezetz, bake ga-

Hiriak bi hiritar motetan banatu daitezke:
polizia ikusi eta seguru sentitzen diren
horiek, eta polizia ikusi eta zer edo zer
txar egin ote dugun pentsatzen
hasten garen horiek

raiek polizia gehiagoren beharra dutela. Bakea, autoritatearen “normaltasunak” ekarriko duela.

Nazkatuta nago polizia guzti horrekin, nazkatuta nago begirada autoritarioekin, nazkatuta nago jarraipene-kin, akosoekin, horiek denekin. Izan ere, poliziak ez dio patriarkala izateari utziko emakumeak uniformatzearekin, benetan polizia herritarren zerbitzura jarri nahi badute, egitura poliziala aldatu beharko litzateke, egitura patriarkal eta militar hori.

Benetan herritarren zerbitzurako polizia bat nahi badute, kaleetatik atera beharko lirateke, hiritarrak zelatatzeari utzi, torturatzeari utzi, gomazko ezta algo-doizko pilotak izateari utzi, interpelatuak izateko gaitasuna garatu, inpunitatea ezabatu. Bakea poliziak ekarriko badu, bide bat eta bakarra baitute: hiritarrak bakean uztea. •

«Printzipio handiekiko fideltasuna beharrezkoa eta egingarria dela erakutsi dit Euskal Herriak»

Liburu harresi batek inguratzen du egunero. Milaka alek kuka agurtzen dute, eta, liburuai eusten, irribarrez begiratzen dioten galtzada-harriak daude. Hautsak estali ez duen idazmakina eta “Escribidero” etiketaren azpian ordenagailu modernoago bat ezkutatzen dira bere erreinuan. Leihotatik Kantauri itsasoa arrotzen zaio, eta, Sastren oinen azpian, Hiru argitaletxea zenaren errautsak daude oraindik.

Makilaz lagunduta egiten du aurrera Estatu espainoleko antzerkigile entzutetsuenak, berak dioen bezala, Eva Forest izar gidaria ondoan duela. Astelehenean zazpi urte beteko dira Eva hil zenetik, baina, hala ere, bere presentzia «modu ezin intimoagoan» sentitzen du oraindik.

Liburutegi erraldoi honetan pasatzen dituzu egunak.


Bai, orduak lanean ematen ditut hemen, baina, lana baino, jolasa da hau niretzat.

88 urte beteta liburutegian igarotzen duzu eguna, haurtzarora, baina, ohean igaro zenuen.

Umetan pleuresia jasan nuen; biriketako gaitza da, eta atsedean hartzera behartzen ninduen. Denboraldi luzeak ematen nituen ohean, eta, liburuz inguratuta nengoenez, irakurtzen hasi nintzen. Dena zegoen ni irakurtzen hasteko prestatuta. Patua izan zen. Nire aita, gainera, zaletasunez aktorea izandakoa zen eta etxean genituen liburu gehienak berak antzeztutako obrak ziren.

1936ko gerra ume zinela bizi izan zenuen.

Gudak eztanda egin zuen unean 10 urte nituen. Moja-etxe baten parean bizi ginen Madrilén, eta, guda pil-pilean zela, talde anarkista bat komentuan sartu eta liburuak leihotik behera jaurti-



ALFONSO SASTRE

ISILDUTAKO AHOTS HANDIA

Isiltasunean egiten du hitz eta zentsura pitzatuta lortu du oihartzuna. Estatu espainoleko antzerkigile handiena den madrildar honek gurean aurkitu du aberria.

oihana.llorente@gaur8.info

tzen hasi zen. Ni kalean nengoen, jolasten, baina, liburuak ikusita, haiek harrapatzen hasi nintzen. Horrela hasi nintzen gaur egun dudan liburutegia eraikitzen. Ebatsitako liburu horien artean Henrik Ibsenen “Espectros” zegoen; sekulako obra da eta nigan eragin handia izan du. Pentsa, harrapaketa horretan egon ez balitz, agian ez zen inoiz nire eskuetara iritsiko. «Ni eta nire zirkunstantziak naiz ni» zioen Jose Ortega y Gassetek, eta halaxe da nire kasuan ere.

Antzerkiaren munduan murgiltzen 40ko hamarkadaren amaiera aldera hasi zinen. Nola gogoratzen dituzu lehen urte haiek?

Eguneroko praktikan lekua hartzen ari zen izar laino baten antzera. Egiazko bokazio filosofiko eta literarioa zuen pentsamenduak aurrera egiten zuen nebulo- sa giro horren baitan, eta, antzerkiak, noski, leku berezia izan zuen horretan. Hori guztia Arte Nuevo deitu genuen taldearekin eta haren inguruan gertatu zen. Arte Nuevo Madrilén aritu zen lanean 1946 eta 1948 artean.

Estatu espainoleko antzerkigile ezagunenetakoa zara eta dozenaka dira idatzi dituzun lanak. Zer erantzungo zeniguke lan horietako bat hautatzeko bidegurutzean ipiniz gero?

Horretarako gauza ez naizela erantzungo nuke, baina estreinatutako ez diren obra batzuekiko atxikimendu berezia dut; ez dira gutxi gainera. Izenburu bat esateko tematuz gero, “El camarada oscuro” esango nuke.

Zuk zeuk aitortu duzu «bazterketaren xarma apalean» aurkitzen zarela. Isildutako idazle bat zarela uste duzu?

Ez beste adiskide batzuk baino gehiago!

Ia 80 dira idatzi dituzun antzerki obrak. Horietatik erdiak

baino ez du egin oholtzarako bidea, eta, agertokietara iritsi diren lanak, gainera, ez dira baldintza egokienetan heldu. «La sangre y la ceniza» obraren estreinaldian, adibidez, lehergailu batek egin zuen eztanda. Carabanchelen nengoen preso Miguel Cervet zientzialariaren bizitza jasotzen duen lana idatzi nuen. Zentsuratua izan zen idatzi eta berehala, baina, 1976an, Juan Margalloren El Búho taldeak oholtzara eramatea erabaki zuen. Bartzelonan izan zen estreinaldia, Villarroel antzokian hain zuzen. Eta funtzioa hasi aurretik egin zuen eztanda lehergailuak. Antzezleek adore handia erakutsi eta aurre egitea erabaki zuten.

Zergatik ez dira zure obrak antzoki ofizial eta agertoki komertzialetara iritsi?

Noizbait bai iritsi dira, baina, egiazki nire ideei politikoei bidea zaildu egin dute.

Intelektualek gizartearen gaineko ardura morala izan behar dutela uste al duzu?

Horrela pentsatu izan dut beti. Hobe esanda, idazten hasi eta berehala hasi nintzen horrela pentsatzen. Adiskide batekin batera “Teatro de Agitación Social (TAS)” manifestua argitaratu nuenetik are eta sinistuago nago horrekin.

Zineman ere aritu zara lanean.

Bai, nire familiak eta nik neuk jan beharra ere bagenuen eta! “Carmen la de Ronda” pelikulan aritu nintzen, adibidez, gidoilari lanetan. Orduko 150.000 pezeta ordaindu behar zizkidaten eta hantxe aritu nintzen Sara Montiel protagonista zuen pelikulan. Nik egindako lehen gidoiaren arabera, Sara hil egiten zen pelikularen amaieran. Gidoia egiten nuen bitartean, Sara Amerikan zegoen, eta, produktoreek zirriborroa irakurri zutenean, Saritari hiltzea ez zitzaiola gustatzen erantzun zidaten. Nik



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

kobratzearren nahiko zuten amaiera idatziko niela esan eta hiru amaiera desberdin egin nituen. Azkenean, zuzendaria aldatu eta nik idatzitako ia ezer ez zuten erabili; filmeko kredituetan «Alfonso Sastrenen ideiei bastean oinarritutako filma» zela zioten, baina ez dakit non gelditu zen ideia hura! Baina ordaindu, behintzat, ordaindu zidaten!

Urteak dira antzerki lanak idazten ez dituzula. Ezjakintasunaz nazkatu al zara?

Idazterakoan ez dut besteen ezjakintasuna aintzat hartzen. Hori bai, ni neu ezjakin bat izateko ahaleginak egiten ditut. Herri xehea ergela dela esan eta herriari atsegin emateko ergelentzat idatzi behar dela defendatzea lelokeria da. Lope de Vegak esandakoa, baina, finean, ergelkeria hutsa. Egia da denbora asko daramadala antzerki obrak idatzi gabe. Gaur egun, alabaina, badira antzerkiak baino gehiago erakartzen nauten gaiak, eta horiei eskaintzen diet nire denbora.

«Sozialismoaren sakoneko eta epe luzeko erronka jendarte komunista baten oinarrien irekiera da, ez gehiago baina ezta gutxiago ere»



Horrenbestez, zertan zabiltza uneotan?

Nire azken liburuak orain gutxi ikusi du argia: «Hacia un socialismo de las multitudes?» (Hiru, 2013). Izenburuak edukiaren berri ematen du eta kaleetan erdizten ari den prozesu iraultzaile baten atarian egon gaitezkeela defendatzen du liburuak. Gaurkotasan handiko gai zoragarria, zalantzarik gabe.

Jendarte justuago batekiko konpromisoak sozialismoaren inguruan idaztera eraman zaitu behin baino gehiagotan. Zeintzuk dira, zure ustez, sozialismoaren egungo erronkak?

Sakoneko eta epe luzeko erronka, nire ustez, jendarte komunista baten oinarrien irekiera da, ez gehiago baina ezta gutxiago ere.

Kartzela behin baino gehiagotan ezagutu duzue bai zuk eta baita Eva Forestek ere. Zure alaba Evitak ere barrutik ezagutu zuen espetxea.

Duintasun kontua izan zen. 1962. urtea zen eta Asturiasen greban zeuden meatzariei elkartasuna helarazteko emakumeen mobilizazio bat egin zuten Madrilen. Bertan parte hartzeagatik atxilotu eta isuna ezarri zieten hainbat emakumeri, tartean Evari. Eta hura ez ordaintzeko konpromiso sendoa erakutsi zuen Evak. Hamabost egunez espetxera eraman zuten, eta, Evita bularreko umea zenez, amarekin igaro zituen egun horiek espetxean.

Zerk lotu zintuen Euskal Herri- ra? Eta Txingudiko badiara?

Espetxetik atera eta berehala erabaki genuen Eva eta biok Euskal Herria gure etxe bihurtuko genuela. Printzipio handieki-ko fidela izatea beharrezkoa izateaz gainera, egingarria ere badela erakutsi zigun Euskal Herriak. Eta ergelak ez garenez, badi eder hau hautatu genuen gure etxe moduan. Euskal Herri-ri bizitzearen erabakia, beraz, ulerterraza da.

Behin baino gehiagotan nabarmendu duzu Euskal Herriaren eta zure artean elkartasun truke bat izan dela. Zer eman dizu zehazki herri honek?

Arestian aipatutakoren ziurtasuna eman dit.

Eva Forest ezagutzeak bizitza eraldatu zizula esan duzu behin baino gehiagotan. Zer zen Eva zure bizitzan?

Nire lagun handia izan da beti, bai eta izar gidari bat ere. Eva idazle handi bat izan zen, eta bere bizitza osoa mirariak egiten igaro zuen. Bere balioa ziurtatzea erraza da: hortxe daude bere liburuak.

Astlehenean zazpi urte beteko dira Eva Forest hil zenetik. Nola daramazu?

Une oro dut bidelagun eta beti egongo da nire alboan! Nire bidean argia isurtzen jarraitzen duen izarra da Eva. Bere presentzia modu ezin intimoagoan sentitzen jarraitzen dut oraindik, egunero-egunero gainera.

Hiru seme-alaben aita, aitona eta birraitona ere bazara.

Birbiloba bakarra dut oraingoz, bi urtetxo betetzear da eta harekin nagoenean hari eskaintzen diot arreta guztia. Oraingoz bederen ez die liburuei kasu askorik egiten. Harritzen nauen kontua da hori, ez pentsa!

Joan den astelehenean Madril-en egin moduan, etzi, Madrileko aktoreek omenalditxo bat egingo dute Hondarribian, zure eta Eva Foresten omenez. Zer suposatuko du horrek?

Eszenako munduarekin ezkontza berri bat bezalakoa izango da, eta nire lagunekin gustura asko egongo naiz. Aleluia!

Zure lanak ikertu eta saritzen dira, baina, ez dira gehiegitan antzezten. Aitorpenak konpen-tsatzan al du?

Inoiz ez dut nire bokazioa aitorpen terminoetan aztertu. Aitorpen hori eman denean, alabaina, noski izan dela poztasun iturri, batik bat nire lanak beste hizkuntza batzuetara itzuli dituzten bakoitzean. Idazleontzat, izan ere, plazer izugarria da itzuliak izatea.



Eva Forest eta Alfonso Sastre, «Alfonso Sastre en el laberinto de la trama» lana aurkezten. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

OMENALDIA

Astelehenean zazpi urte beteko dira Eva Forest zendu zenetik. Bere izena eta izana gogoratzeko eta Alfonso Sastren ibilbide oparoa omentzeko, ekitaldia izango da 19:00etan Hondarribiko Itsas Etxean. Madrileko antzerki munduko lagunak ari dira omenaldia prestatzen. Joan den maiatzaren 12an Sastren jaioterri den Madril-en bertan egin zuten lehen omenaldi bat.

ZERTZELADAK

1926 ko **otsailaren 20an Madril-en** jaio zen Estatu espainoleko antzerkigile entzutetsuena den Alfonso Sastre Serrador. Salamancako igeltsero sendi bateko alaba zuen ama, eta, aita, Murtziako gizasemea; herritar umilen emigrazioaren semea da, beraz, Alfonso.

Aita aktore izandakoa zuen, eta Alfonso txikiaren irakurzaletasunak azkar eraman zuen aitaren antzerki obretara. Kultur munduarekin harremana estutzeroa eramango zuten adiskideak egin zituen eskolan, eta, haiekin, lagun artean, ibili zuen Maravillas antzokirako bidea. Bertan izan zen ikuskizun eta entseguen testigu, eta bertan utzi zion ikusle huts izateari.

Oraindik hogeitau urteak beteak ez zituen Sastrek arkatza zorroztu eta bere lehen antzerki lanak idatzi zituen. Oholtzan eragiteko eta hura iraultzeko grinak, baina, azkar aldarazi zion norabidea eta **Arte Nuevo** abangoardia antzerkiko laborategia osatu zuen. Gerora, Frankismoaren kontrako posizio argia hartu eta «**Teatro de Agitación Social (TAS)**» manifestua erditu zuen.

Eraso eta bonbardaketa artean igaro zuen haurtzaroa, eta, gaztaroa, Frankismo gori-gorian. Aita eta lagun gehienak kontserbadoreak zituen arren, azkar hartu zuen Sastrek ezkerreko norabidea eta bere ikuspegi

politikoek bere lanak blaitu eta salaketaren lerroan ipini zituen. Garai hartakoa da «**Uranio 235**», adibidez, Hiroshima eta Nagasakiren bonbardaketen ostean idatzia. 1953an, ordurako Filosofia eta Letretan lizentziatuta, «**Revista española**» aldizkariako koordinatzaile bihurtu zen.

1956 an, **Eva Forestekin ezkondu** eta berehala, Unescoren beka bat baliatuz, Parisera alde egin zuten. Madril-en, ikasle mugimenduan aritzeagatik auzipetuta zegoen Alfonso. Erbestean jaio zen bikotearen lehen semea: Juan. Eta bertan erabaki zuten PCE Espainiako Alderdi Komunistan izena ematea.

1966 an Carabancheleko ziegak ezagutu zituen Sastrek, baina horrek ez zuen bere izaera iraultzailea itzali. Urtebete geroago, Evarekin batera, Vietnamekin elkartasunezko komitea osatu zuen, eta, 1974aren bueltan, **Euskal Herria deskubritu** zuen bikoteak. Errepresioaren itzalak harrapatu eta Carrero Blancoren heriotza tarteko, espetxean bukatu zuten biek. Sastrek zortzi hilabete eman zituen espetxean eta Burdeos-en erbesteratuta itxaron zion Evari. 1977an, Baionan, euskal iheslarien aldeko gose greban parte hartu ostean, Telesforo Monzonek **Sastren euskal naziotasuna** aldarrikatu zuen. Eva espetxetik aterata,

itzulerarik izango ez zuen Euskal Herrirako bidaia egin zuten elkarrekin.

1985 ean **Antzerkiaren Sari Nazionala** eskuratu zuen Sastrek lehen aldiz –1993an ere jasoko zuen geroa–. «**La taberna fantástica**» arrakasta handiena eskuratuko duen Sastren obra 1985ean bertan estreinatu zen. Asko dira garai honetan idatzi zituen lanak, asko antzerki obrak baina baita entsegu liburuak eta olerkiak ere. Asko idatzi arren, idazle isildua da Sastre. Bere ahotsak oihartzuna izan zezan, Eva Forestek **Hiru argitaletxea** sortu zuen 1989an.

1996 an ASKE elkarte osatzen da: Alfonso Sastre Kultur Elkartea. Hausnarketarako abagune diren jardunaldiak antolatuko ditu elkarteak urtero-urtero, 2010era arte. 1998an Guardia Zibilak itxitako «Egin» egunkariaren erreleboa hartu zuen «Euskadi Información» egunkari lehendakaria izan zen Sastre,

2003 .urtean, **Ohorezko Max Saria** eskuratu zuen Sastrek. 2009ko Europako Parlamenturako hauteskundeetarako ezkerreko abertzaleek osatutako **Iniziatiba Internazionalista** koalizio politikoko zerrendaburua ere izan zen.

POSTMODERNO XELEBREAK ~ ARTEA GUSTATZEN EZ BAZAIZU...



Geure egin

Iker Barandiaran


Aspaldian irakurri dudak musika-ekin lotutako liburu interesgarriena Michael Azerrad kazetariaren "Nuestro grupo podría ser tu vida" da, gaztelaniara itzuli berri dutena. 1981 eta 1991 artean AEBetako zenbait underground taldek izandako bilakaera jasotzen du protagonisten ahotik. Liburuak ez du musikan sakontzen, bai ordea partaideen arteko harremanetan eta ezerezetik ospera egindako bilakaeran –kontziente zein nahi gabeko– kasu gehienetan izandako tirabira eta tentsioetan. Hamahiru ataletan banatuta dago eta bakoitza musika talde bati dagokio: Sonic Youth, Black Flag, The Minutemen, Dinosaur Jr, Fugazi, Big Black

eta Mudhoney, besteak beste. Talde arrakastatsuak ia guztiak, edo gutxienez oso oso esanguratsuak, undergroundekoak, diskoetxe multinazionalen arteko tentazioan egon ziren proposamen intentsuenak gizarteak eta merkatuak bere egin nahi zituen garai desorekatu haietan, Nirvanaren "Nevermind" diskoak eztanda egin eta guztia hankaz gora jarri zuen arte.

Askok hitz egin da Nirvana taldeko zori-tzarreko gidari Kurt Cobainen inguruan: ospeak gain egin ziola, pertsona ahula zela, eta abar luze bat. Baina liburu honetan ere drama pertsonal eta bizikidetasun arazo latzak ageri dira egunerokoari lotuta ere badirenak. Ez ditut Ozzy Osborne,

Keith Richards eta antzeko piztien neurritz gainera pasarte xelebreekin parekatuko; liburukoak hezur-haragizko pertsona arrunten istorioak dira, baina dramak hauek ere hein handi batean. Gainera, liburuak bere gordintasunean erretratatzeko, engainurik gabe.

Eta gurerat etorrita pentsatzen dut hemengo musika talde askoren proiektuek aurrera egiteko edo bizirauteko taldekideek bizi dituzten ezinak eta bizikidetzak ere ez direla makalak izango, eta kantuetako askoren jatorria hor izango dela; horregatik egingo ditugu geure. Gainera, nagusienek esaten duten moduan, sufrimendurik gabe ez dago emaitzarik. •



IDIAZABAL GAZTA

Artzai Gazta elkarteko hainbat gaztagilek Eroskirentzat ekoitziko dute, produktua zabaltzeko ahalegin betean

 **EKONOMIA /** maider.eizmendi@gaur8.info

Salmenta ohiturak asko aldatu dira. Orain ez urte asko etxean eta merkatuetan saltzen zuten gaztagileek produktuaren gehiengoa; egun, berriz, denda eta saltokietara jo behar izaten dute. Horregatik Eroskirentzat gazta ekoizteko lortu duten akordioa begi onez hartu dute.

Ohi baino beranduago ari da lanak amaitzen. Goizean goiz lanean hasi eta ordu bata alderako gaztandegia garbitzeko la-

nak amaituak izaten dituzte. Gaur, ardien esne produkzioaren kontrolaz arduratzen den ikuskaria izan da euren etxean eta horrek atzeratu egin du apur bat lana.

Basterra Anaiak gaztandegian lanik gehien duten urteko sasoiari bete-betean sartuak daude. Otsailean hasten dira gaztak egiten eta uztailean bitartean aritzen dira lan horretan, lehen eguzki izpiak atera aurretik hasi eta haiek desagertu arte ia. «Egun hauek dira ardiek esne gehien ematen dutenak; horrek, noski, gazta produkzioa eta, beraz, lana ere, handitu egiten du»,

azaldu du Pablo Basterra gaztagileak eta Artzai Gazta elkarteko presidentek. «Udaberria ona doa, ez du hotz handirik egin, ez eta bero sargoririk eta euri askorik ere. Hori lagungarri dute ardiek esne produkzioa handitzeko», zehaztu du Basterrak.

EROSKETA OHITURAK

Gaztaren kalitatea ahalik eta handiena izan dadin lan eskerga egiten dute Basterra sendiko ki-deek, baina horrez gain ekoizten duten produktua ahalik eta aho-sabai gehienek dasta dezaten ere ahalegin handia egin behar izaten dute. «Kontsumo eta, ba-

tez ere, erosketa ohiturak asko aldatu dira; lehen, produkzioaren %80 etxean edo merkatuetan saltzen genuen; orain, %20a baino ez da iristen kopuru hori», azaldu du. Horregatik, gaztagileek, ekoizpen lana burutzeaz gain, komertzial lanetan ere aritu behar izaten dute, euren gaztak inguruko dendetan sal ditzaten lortzeko.

Horregatik, Idiazabal Jatorri Izendapeneko Kontseilu Arautzaileak Eroskirekin lortu duen hitzarmena aukera gisa planteatu dute. Pasa den ostiralean jendaurrean aurkeztu zuten akordioaren baitan, besteak



Leioako Eroskiren hipermerkatuan egin zen aurkezpen ekitaldia, elkartetako eta erakundeetako ordezkariekin. Beste orrian, Pablo Basterra gaztagilea egin berri dituen bi gazta erakusten.
GAUR 8 - Marisol RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

beste, Artzai Gazta elkartaren baitan biltzen diren 112 gaztagileetako hainbatek, Eroskiren SeleQtia markarentzat ekoitziko baitute zuzenean. «Eroskik Estatuan dituen dendetan ezagutzera emateko aukera bat da eta une honetan garrantzitsua da hori», aipatu du.

Interesa elkarrekikoa da; izan ere, Eroskiren zuzendari komertzialaren ondokoak ekitaldian bertan nabarmendu zuen moduan, interesa dute «Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako produktuak sustatzeko eta garatzeko, eta kontsumitzaileen interesa babesteko, kalitatezko tokiko produktuak eskatzen ari baita eroslea».

Artzai Gaztako presidentearen iritziz, Eroskirentzat gazta egingo duten gaztagileentzat,

aukera bat da, eta, aldi berean, errorika bat ere bai. «Etiketatzeari, garraioari, eskariari antolatu eta koordinatzeari... guretzat desafio bat da», aipatu du Basterrak lanak ondo egiteko gogo badutela aitortuta: «Denboran askoan iraungo duen bidea izan dadin espero dut».

KALITATEA BERMATUTA

Gaztagile batzuk dagoeneko hasi dira euren lehen gaztak Eroskira bidean jartzen, hiru hilabetez ontzen izan ostean. Basterra hemendik hilabete eskasera hasiko da lan hori egiten, oraindik ere ez du-eta denbora horretan ontzen aritu den gaztarik.

Produktuaren kalitatearen inguruko zalantzarik ez dela dio gaur-gaurkoz, besteak beste, nazioartean egiten diren lehiaketetan ere Idiazabal gazta

{ Kaltzioa }

EUSKAL MENDIETAKO MUINA

Idiazabal jatorri izendapena duen gazta ardi esne gordinarekin egiten da -ardi latxaren edo Karrantzako ardiaren esnea izan behar da derrigorrez-, eta gutxienez bi hilabete ematen ditu ontzen. Esneak dituen ezaugarrien artean, kaltzioan duen kopuru handia dago; eta horrek, besteak beste, osteoporosiaz babesteko elikagai egoki bihurtzen du. Beharbada ez da horren ezaguna hortzetako txantxarretik babesteko duen balioa.

ezagutu dutelako behin baino gehiagotan. Batean eta bestean jasotako sariak dira horren adibide. Merkatu berriak aztertzea oinarritzkoa dela uste du, baina Basterrak argi du bertako gaztagileen burua inguruan saltzea dela eta euskal kontsumitzaileen artean Idiazabal gaztak estima lortzea. «Gure burua agian kanpoan jarri behar dugu, baina era batean kanpoan jarrita ezin dugu aritu», azaldu du. «Gure apustua hemen dago», indarra egin du.

Gaztaren gaineko balorazioak, izan ere, bere ustez, artzaintza eta gaztagintza bermatzeko oinarri-oinarritzkoak gertatzen dira bizi ditugun garaiotan. «Gaur egun zail egiten zaigu gazteen artean erakargarri den sektore gisa agertzea. Alde batetik, esfortzu handia eskatzen duen lana da [neguko beharraz gain, udan ere maiz mendira joatera behartuta daude inguruko mendietan otsoak daudelako eta haien erasoak jasotzeko beldur direlako], eta, bestetik, etekin eta errekonozimendu txikia jasotzen ditugu», nabarmendu du. Gure inguruak zaizkion dituzten ofizio hauei sostengua ematea, baina, behar-beharrezkoa da landa eremuak txukun mantentzeko daitezkeen lortzea nahi badugu.

«Eroskik Estatuan dituen dendetan ezagutzera emateko aukera bat da akordio hau eta une honetan garrantzitsua da hori», nabarmendu du Pablo Basterra gaztagileak

«Gure burua agian kanpoan jarri behar dugu, baina era batean kanpoan jarrita ezin dugu aritu. Izan ere, gure apustua hemen dago», egin du indarra Artzai Gazta elkarteko presidentek



SASOIKOA
IDIAZABAL GAZTA

infraganti

ASIER ALCALDE

Sukaldari gaztea da Asier Alcalde, baina, etxeko jatetxe onenetako sutondoetatik igaro ostean, mundua dastatzeko ahalegina egin du dagoeneko. Urrutiko zapore eta osagaiekin gozatua hartu ondoren, irudimena borborka ipini eta Estatu espainoleko Urteko Sukaldaria lehiaketako finalera iritsi berri da.



Asier Alcalde, Urteko Sukaldaria lehiaketako finalean, Bartzelonan. GAUR8

Eltze artean lan egitea atsegin du, eta, afizioa ofizio bihurtuta ere, gozatzen dakien horietako da Asier Alcalde (Irun, 1983). Osagaiak egosten dituen bitartean irudimena borborka izaten du, betiko jakiei ukitu berezia ematea gogoko baitu Alkaldek. Mahaian gozaraztearekin batera, bezeroak harritzearen aldeko apustua egiten du-eta sukaldari irundarrak.

Oraindik 30 urte eskas dituen arren, Alkalderen curriculumean agertzen den jatetxeen zerrenda luzea bezain anitza da. Ikasketak bukatuta han eta hemen aritu da, munduan barrena, handik eta hemendik mokaduak jan eta esperientziak biltzen.

Urteko Sukaldaria lehiaketako finalean lehiatu berri da, Estatu mailako laugarren postua eskuratuz apirilean Bartzelonan jokaturako finalean. Ez da jaso duen garaikur bakarra, baina dabilen horretan gustura asko aritzea baino sari hoberik ez du irudikatzen.

Jakiek baino ordenagailuek erakarri zuten lehenengo, informatikara zuzendu behar zituen-eta bere ikasketak hasiera batean. Amak, baina, eltze artean ondo baino hobeto moldatu eta esku ezin hobea zuela esan zion, eta Donostiako Cebanc sukaldaritzako eskolan eman zuen izena. Sukaldaritzako erdi mailako gradua ikasi zuen lehenengo, eta errestaurazioko goi mailakoa ondoren.

Amatxoren altzoan ikasitako Hondarribian bertan jarri zuen praktikan, Arraunlari jate-txean sukalde laguntzaile moduan hasi baitzuen bere bidea. Asteazken zehar ikasi eta asteburuetan aritzen zen eltze artean, bai eta udara guztia borborka igaro ere. Andoni Luis Adurizen Mugaritz jatetxean egin zituen praktikak ondoren, eta Hernaniko Fagollagan ere aritu zen ia bi urtez.

Ondoren hasi ziren sukaldari trebe honen ibilerak. Lleidako Josa de Cadí herrian dagoen Cal'Amador ostaltua izan zuen lehen geldialdia, eta iaz munduko jatetxe onenaren saria irabazi zuen El Celler de Can Roca jatetxeko sutegian egoteko parada ere izan du.

MUNDUAN BARRENA IBILIA

Urrutiko osagai eta zaporeak gozatu eta ikasteko irrikak mugituta mundua ere ezagutu du. Taiwan izan zuen lehen helmuga, eta gogaituta gogoratzen du bertan ordaindu behar izan zuen "hasiberri saria": «Taiwaneko jatetxe oneneko sukaldeburu izan nintzen. Izugarritzko lanpostua zen eta ondo baino hobeto saldu zidaten guztia hegazkina hartu aurretik. Han, baina, 16 ordu egiten nituen lan egunean. Goizeko zazpi eta erdietan sartzen nintzen lanera, eta gaueko ordu bata aldera irten. Nire jai eguna arratsalde bat zen, pentsa!», azaldu digu egoeraren jabe egiteko moduan. Paper kontuak zirela medio, hilabete bakarra eman zuen Ekialdeko zaporeen artean.

Esperientzia hark ez zuen traumatizatu mundua dastatzeko ahaleginean eta ia bost urte igaro ditu Euskal Herriatik urrun. Brujas eta Edinburgo izan ditu azken geltokiak. Euskal sukaldaritzak atzerrian duen oihartzuna handia dela dio Alkaldek, eta euskalduna izateagatik ederto hartu dutela azaltzen du: «Kanpoan zaude-nean ohartzen zara gure gastronomiaren ospeaz, jende guztiak ezagutzen ditu bai Donostia bai bertako pintxoak. Euskaldunak izateagatik harrera beroagoa egiten digute».

Bidaiazte eta kultur ezberdinek ezagutzea atsegin duen arren, etxean bezala inon ez dago Alcalde, eta egun Laia Erretegian duen lanpostua ez du berehala utziko. Orain gutxi Poloniatik jaso du azkeneko lan eskaintza. Lan biribila eta baldintza ezin hobeak ziren, baina etxeko sutondotik urrutiegi. «Ia bost urte igaro ditut kanpoan, eta familia, lagunak eta nekaloguna gertu edukitzea garrantzitsua da niretzat», bota digu ezezkia arrazoitu nahian.

Urtebete darama Hondarribiko Laia erretegian eta gustura asko dago bertan. Oreak ezin hobea aurkitu du Jaizkibeleko mendi hegalean, tradizioan oinarritutako gastronomia berrikuntzaz ondus.

Sukaldari gazte gehienek antzera, bere jatetxea izatearekin egiten zuen amets. Azkenaldian, baina, ametsa baino amesgaiztoa izan daitekeen susmoa hartu dio. «Aretoaren alokairuaz gainera, hilero-hilero hiruzpalau soldata ordaindu behar dituzu, gauetik goizera sekulako zorrean sar zaitezke», dio beldurrik zerrendatuz.

Bide horretan proba txiki bat egin zuen Irungo Behobia auzoan dagoen ETH hoteleko jatetxean. Ondo baino hobeto atara zen sei hilabete iraun zituen esperientzia, baina, eguneko menu eta platerak prestatu behar baino, beste hamaika kezkek galarazten zuten Alkalderen loa. «Egunero 50 menu eman behar genituen eta egun batean iristen ez baginen, beste gehiago eman behar genituen hilabete amaierara iristeko.... Horrekin arduratuta egonik zaila da irudimenari eragin eta platerak asmatzea!», azaldu du.

Krisiak sukaldaritzara ere gogor kolpatu badu ere, aukera berriak irekitzen ari direla sines ten du irundarrak. Badira, adibidez, alokairua ordaindu beharrean jatetxearen etekinak aretoaren jabearen eta sukaldari buruaren artean banatzen hasi diren jatetxe berriak. Aukera zinez interesgarria da Alkalderen begietara, eta halako bat parean tokatuz gero jatetxea ireki-

tzea pentsatuko lukeela dio, «gainontzean, ezta pentsatu ere!», dio barrez baina irmo.

Bien bitartean gustura asko dago sukaldari enplegatu moduan, burua plateretan zentratzeko aukera izan eta hilabete amaieran soldata ziurtatua edukitzea ez baita aukera txarra.

Saltsa guztietako perrexila da Alcalde eta Argiñano moduan telebistan ere aritu da sukaldaritzaren ikastaroak eskainiz, TeleDonostin, hain zuzen ere. «Saio bateko kontua zena ia bi urtez luzatu zen», kontatu digu.

Sukaldaritzaren ofizio izateaz gainera, pasio ere badu, eta, lotsa gabe onartzen duen moduan, «sukaldaritzaren frikia» era bada neurri batean: lana eta zaletasuna da beretzat eltze artean aritzea, sukaldaritzaren gaineko liburuek betetzen dituzte etxeko apalak, jai egunetan aurrez erabakitako taberna edo jatetxeetara joaten da pintxoak edo jakiak dastatu eta bide batez ikastera... Urteen poderioz, hala ere, lasaitu eta konpetentziako jakiekin gozatzera heldu dela aitortu digu.

ETXKO BEROAN NAHIAGO

Laia du orain sutondo eta gustura asko dago etxeko beroan. Orduetgia ere ezin hobea du, irailetik ekainera lanaldi jarraitua du-eta. «Hori asko da sukaldaritzaren munduan, Laian hasitakoan arratsaldeekin zer egin ez nekiela aritu nintzen lehen asteetan!», dio kontent. As-tebete lehenago adosten dituzte jatetxean eskainiko dituzten eguneko menuak, eta, hortaz, goizeko lehen orduetan sukaldariak *Mise en place* deritzoten horretan aritzen da: «Prestaketa lanak, denok ulertzeko: entsaladarako barazkiak garbitu, moztu, saltsak prestatu...». Eguerdiko ordu gorenetan pilatzen zaie lan gehiena, bai eta asteburu eta jaiegunetan ere, ezkontza, jaunartze edota jaio-tza ospakizun askoren aterpe baita Laia.

Bartzelonatik heldu berri hartu gaitu Alcaldek. Estatu mailako finalera iristea sekulako saria dela jakin badaki, baina bertara iritsita penaz hartu du laugarren



Asier Alcalde Hondarribiko Laia jatetxearen atarian, Urteko Sukaldaria lehiaketan irabazitako garaikurra erakutsiz.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Urrutiko osagai eta zaporeak gozatu eta ikasteko irrikak mugituta mundua ere ezagutu du. Taiwan izan zuen lehen helmuga, eta Brujas eta Edinburgo bezalako hirietan ere egin du lan

Bi urte barru ez du Estatu espainoleko Urteko Sukaldaria lehiaketan hutsik egingo, baina, hori bai, gastronomiako Oscarrak diren Europako Bocuse d'Or lehiaketa du orain ikusmiran

postua. «Hurrengoan beharko du», dio irribarrez.

Estatu espainoleko gastronomiaren lehiaketa esanguratsuena da bi urtetik behin ospatzen den Urteko Sukaldaria sariaketa. Finalera punta-puntako bost sukaldari iristen dira, bakoitza Estatutako geografiako mutur bateka. Galiziako Santiago hirian egin zen iparraldeko kanporaketan eskuratu zuen Alcaldek finalerako txartela. Aurrez, baina, kanporaketan parte hartu nahi zuten 1.300 menuen artean lehiatu behar izan zuen. Honako izan zen Alcaldek proposatutako menu garailea: lupia ketua ozpinez ondutako barazkiekin,

datilak eta beren pil-pila; euskal txerrikizko *raviolo* ez-titsua neguko barazki muinez; eta arabarba konfitatua berbena limoi usainezko izozkiarekin eta kiwizko, sandiazko eta piper arrosazko ukituekin.

IRUDIMENA GILTZA

Hilabeteko tarteak eduki zuen finaleko menua prestatzeko. Irudimena borborka jarri eta ondo-koak ondo aztoratu zituen. Azkenburukoa izan zen buruko min handienak eragin zizkiona. «Hasiera batean arrosa izozkia egin nahi nuen –hasi zaigu kontatzen–, baina frogak eta frogak egin eta talko-hautsen zaporea ez nuen gainetik kentzen». Az-

kenean Jasmin izozkiaren alde egin zuen, hura ere prestatzeko batere xamurra izan ez arren. Bartzelonatik igortzen zizkieten Jasmin hostoak, eta haien infusioa eginda lortzen zuen ondoren izozkia. «Oso nekeza izan zen neurria hartzea. Hasieran, hosto gutxi botata, zaporerik ere ez zuen hartzen, eta, gehiegi botaz gero, aire freskagarri itxura ere hartzen genion lankide guztiek. Hitz gutxitan, eromena izan zen!», dio lan martxa frenetiko hura gogora ekarriz.

Urteko Sukaldaria ez da parte hartu duen sariketa bakarra. 2008an, Cebanc eskola ordezkatzuz, Alcalde izan zen eskolen arteko sukaldaritzaren lehiaketan garaile atera zena. «El Diario Vasco» egunkariak ere euskal sukaldaritzako etorkizuneko promesa moduan aukeratu zuen urte berean.

Bi urte barru ez du Urteko Sukaldaria lehiaketan hutsik egingo, baina, hori bai, gastronomiako Oscarrak diren Europako Bocuse d'Or sariak ditu ikusmiran. Horiek bai nahiko lituzkeela etxeko apalak apaintzen!

oihana.llorente@gaur8.info

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Karramarroak

Zer egin, haien haragia jan ostean karramarroen soberakinekin? Nola birziklatu European urtero sortzen diren milaka tona karramarro azalak? Bavariako laborategi batean ikerlariak karramarro maskorrek errendimendu handiko biopolimero bihurtzeko ahaleginetan ari dira. Azken batean biofindegi batean bezala egiten dute lan. Maskorretan dagoen kitina sustantzia da ikertzaileek bereizten dutena; ostean, kitina tratatu egiten dute plastikoak lortzeko.

> Ardoa

Kontsumitzaile estatubatuarrek gero eta ardozaleagoak dira. Ardoaren eta Mahastien Nazioarteko Erakundearen arabera, azken urteetan ardo kontsumoak beheranzko joera izan badu ere, AEBetan 29,1 milioi hektolitro kontsumitu zituzten iaz, aurreko urtean baino %0,5 gehiago. Datu horrekin, lehen postua kendu diote Estatu frantsesari: ardo kontsumoak 7 puntu egin du behera bertan. Hirugarren dago Alemania, kontsumoan behera egin duen EBko herrialde bakarra.

> Kalifornia

Sutik ihes egiteko, milaka kaliforniarrek beren etxeak utzi behar izan dituzte. Kaliforniak inoizko lehorterik handiena bizi du, eta horri aste honetan izandako beroa eta haizea gehitu zaizkio. Suhiltzaileak sutea kontrolatzeko lanetan ari dira, baina lan zaila dute, haize bolada indartsuak dituztelako. Suteak asteartean hasi ziren San Diego hiritik gertu, baina zabaldu eta makina bat herri kaltetu ditu dagoeneko, besteak beste, Santa Barbara inguru ezaguna.

> Quixter

Kreditu txartelak iraganeko gailu bilaka daitezke aurki. Suediako Lund hiriko unibertsitateko ikasle talde batek ordainketak egiteko sistema biometriko berri bat asmatu du. Sistema horri esker ordainketak aparailu bat eskuekin presionatuz eta mugikorrereko azken lau zenbakiak sartuta egin daitezke. Quixter izenarekin bataiatu dute eta sortzaileak, batez ere, jendea denbora aurrezteko modua emango diola uste du. Ideia pagatzeko ilaran zegoela izan zuela aitortu du.

> Turkia

Aste honetan Turkiara begira egon da nazioartea. Inoiz herrialde honetan izan den meatzaritza istripu larrienak ehunka hildako utzi ditu Soma herrian. Leherketaren unean 787 pertsona ari ziren lanean eta ostegunean eman zieten lurra meatzetik ateratako lehendabiziko gorpuei. Sindikatuek istripua gertatu eta berehala utzi nahi izan zuten agerian Turkian, «beste hainbat herrialdetan bezala, meatzaritza arloan segurtasun neurrien gabezia larria» dagoela.



KUTXATEKA.COM

DONOSTIAKO KAIRAINO IRITSI ZEN MARRAZOA

1951. urteko otsailean marrazo bat agertu zen Donostiako kaiaren inguruetan. Lanak izan zituzten uretatik ateratzen, ez alferrik 3,5 metro luze zen eta 350 kilo pisatzen zituen. Pentsatzekoa da erdi gaixo edo egongo zela marrazoa, bestela ez zen-eta hain otzan ibiliko! **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Google albiste

Ez dakit baden asterik Google etxearen albisterik argitaratu gabe. Beharbada ia egunero edo egunero argitaratzen dira, baina irakurtzen ditugun iturriek pasatzen duten filtroan galtzen dira batzuk, ziur aski. Edozein kasutan, albiste zaparrada horretan, Googlek berrikuntza teknologikoaren buru eta teknologia guztien aitzindari gisa aurkeztu du bere burua, baina askotan jartzen dira zalantzan bere jarduerak, eta baita bere zenbait zerbitzuren jarraipena ere.

Horren adibide da, adibidez, FairSearch Coalition entitateak eskatu duen azken azterketa kriminala, Google etxearen negozio-praktikak ikertzeko helburuarekin. FairSearch entitateak Google beraren lehiakide diren zenbait enpresa biltzen ditu (Microsoft, Nokia, TripAdvisor, eta Oracle, besteak beste) eta gobernu-agentsia ezberdinei Google etxearen aktibitate komertzialen gaineko keak maiztasun handiarekin helarazten dizkie.

Fair Search entitatearen azken iniziativa Pastebin webgunean argitaratutako salaketa batzuetan oinarritzen da (<http://pastebin.com/qh6Tta3h>). Bertan, Googleko langile ohia dela ziurtatzen duen pertsona batek, Google etxeak AdSense zerbitzuarekin dirua lapurtzen duela baieztatzen du. Googlek, noski, akusazio guztiak ukatu ditu eta «fikzio hutsa» direla adierazi du. Izan daiteke. Ezin da ahaztu ordea Google ez dela gobernu kanpoko erakunde bat eta publizitatetik bizi dela, AdSense eta AdWords gisako zerbitzuekin.

Publizitatetik bizi da baina zerbitzu asko eta asko eskaintzen ditu eta horietako bat da Google+. Google+ Googlek Facebook arrakastatsuari merkatua kentzeko sortu duen laugarren sare soziala da, gutxienez. Aurretik sortu eta itxi ziotuen Google Buzz, Orkut eta Google Wave. Baina zalantzarik gabe Google+ izan da horietatik arrakastatsuenak. Are, Facebook beraren atzetik erabiltzaile gehien dituen sare soziala da. Baina etorkizuna ere jokoan izan dezake, diotenez.

Duela oso gutxi Vic Gundotra, Google+ dibisioko zuzendariak bere karguari uko egin zion, azken zortzi urteotan

Google etxearentzat lan egin ondoren. Horren ondotik etorri dira zenbait filtrazio, Googlek barne mailan Google+ dibisioren estrategia seriozki planteatzeko beharra mahai gainean jarri duela adierazten dutenak. Filtrazioek ez dute Google+ ixteko aukera zabaldu, baina bai Google etxearen baitan duen izaera estrategikoa jaitsiko dela. Hau da, diote Google+ jada ez dela produktu bat, plataforma bat baizik, eta, hortaz, ez dela Twitter edo Facebook sare sozialen lehiakide kontsideratzen. Googlek hori ere ukatu egin du, Vic Gundotrararen uko egiteak ez duela Google etxearen estrategia ezer aldatu azpimarratu duelarik.

Googlek kanpotik esaten zaizkion guztiak ukatzen ditu. Eta, noski, bien bitartean, berrikuntza teknologikoaren buru gisa aurkeztu du bere burua. Zentzu horretan, azkenetako albistea bere Chrome nabigatzailean URL helbideak ezkutatze asmoa da. Ez URL

helbidea bere osotasunean, domeinuzena mantenduko luke. Hau da, adibidez, <http://www.domeinuak.eus/eu/komunitatea/> web orria erakusterakoan, helbide osoa erakutsi beharrean, beti <http://www.domeinuak.eus> erakutsiko luke, ondoren dagoen guztia ezkutatu. Erabakia segurtasun kontuekin lotua dago, batez ere *phishing*-a (<http://eu.wikipedia.org/wiki/Phishing>) bezalako aktibitateak saihesteko. Prozedura hau Apple etxearen iOS sistema-eragilean oinarritzen omen da, baina oraindik ez omen dute nabigatzailean behin betiko txertatzea erabaki.

Poztu naiz albiste hori irakurrita, .EUS domeinua abiatu berri dugun honetan, .EUS domeinua bera are ikusgarriagoa bilakatuko lukeelako. Espero dezagun, hurrengo kasuetan ere, berrikuntza teknologikoaren izenean egin diren garapen berriek ez dutela sortu berri dugun tresnaren ibilbidea oztopatuko. •




Askotan jartzen dira zalantzan Google etxearen jarduerak. THINKSTOCK

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

Euskal Herriko **Gida**

Zure
ibilbideak
antolatzeko
aholku
baliagarrienak



Eskura ezazu!

maiatzaren 24a (larunbata) eta 25a (igandea) **GARA + 1,95€**

